

ARRASATE

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

Udalaren laguntzarekin eta / 2 Dr. ...

Arrasate 1989ko Urriak 6 35. zenbakia

Maritxu, nora zoaz?



Pedro Luis

KLINIKA DENTALA

DOHANEKO AURREKONTUA

* Odontokogia orokorra

*Protesi finkoa

*Protesi mugikorra

*Haur eta helduentzako ortodontzia

ITURRIOTZ KALEA, 7 BIS-BEHEA. TFNOA: 79 73 88 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea.....	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak.....	458744
-----------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

6 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "Gorilas en la niebla", 7 eta 9,30etan.

Novedades : "Arma letal 2", 10,30etan

— Maritxu Kajoi:

• Arratsaldeko 5etan "Kukubiltxo" animazio taldea plaza inguruan.

• 6,etan: Erraldoi eta buruhandiak Gaiteroen Ilaguntzarekin.

• 7 etan: Txikiteo ofizialari hasiera, etxaleroz Txarangak ere ordu berdinean hasiko

• 8 etan: Eskaintza

• 11 etan: Garibaiko aparkalekuan berbena "Nomadas" taldearekin.

• 00,00 ordutan: Asto lasterketa

• Goizeko 5etan: Sokamuturra alde zaharreko kaleetan zehar.

— Guardiako farmazia:

Español Iturrioz

7 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Arma letal 2", 5etan, 7,30etan eta 10etan

Novedades: "Arma letal 2", 5etan, 7,30etan eta 10,30etan

— Arrasaten: "Memorial Gervais"

Txirindulari proba, Erlojuaren aurka, 4etan hasi Musakolan.

Gipuzkoako afizionatu Txapelketaren azken karrera

Kiroldegian: Arrasate kirolak-La Salle Deusto, Saskibaloia, 6etan.

Monterronen: 7,30etan, Batzokiaren 10. urteurrena dela eta,

ekintza politikoa X. Arzalluzekin.

— Guardiako farmazia:

M. Corcuera, Musakola.

8 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Arma letal 2", 5etan, 7,30etan eta 10etan.

Novedades: "Arma letal 2", 5etan, 7,30etan eta 10,15etan

— Arrasaten: Goizeko 11,30etan Loramendi kalean hasita, "Arrasateko XI Herri Krossa Bi buelta zirkuitoari, 10 km.200ptako in-skripzioa 7-14 urte bitartekoen-tzat proba bereziak.

— Guardiako farmazia:

J. A. Irizar, Erguin.

9 ASTELEHENA

—Zinea: Alai: "Arma letal 2", 7 eta 9,30etan.

Novedades: "Arma letal 2", 7,30etan

— Garibai kalean: Liburu azokaren inagurazioa

— Eskoriatzako kultur-etxean : 7etan Antxon Juaristiren hitzaldia "Eduardo Gorosarri, vida y obras"

— Guardiako farmazia:

L. Amesua, Santa Marina.

10 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Arma Letal 2", 7etan eta 9'30tan.

— Goardiako farmazia: A. Ruiz, Magdalena.

11 ASTEAZKENA

— Goardiako farmazia: A.M. Morales, S. Andres.

12. OSTEGUNA

— Monterronen: eguadiako ordu batean, Elgoibarko Udal Musika bandaren kontzertua.

— Goardiako farmazia: A. Azkoaga, Ferrerías.

IRTEERAK

— Nafarroa Oinez 89rako autobusak: AED elkarteak antolatuta igande honetan Etxarri-Aranazera joateko. 700 pta. Izen ematea AEDn (795446) edo Iturriotz tabernan. Goizeko 9etan irtengo dira.

— Besaide Mendizale elkarteak Benasqueko "Estos" bailarara irteera, Urriaren 12tik 15era. 4000 pta (gazteek 2000) bidaia eta lo egitea.

FERIA

— Elosun, ostegunean, urriak 12, "Mendiko ganadu feria". 9etan

BERGARA MODA

- Bergarako Dendarien Elkarteak antolatuta, Txibiston. Urriaren 8an, igandez, arratsaldeko 7etan.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Ruth Otaduy

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotzak.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3
Bis, behea. 79 71 64


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 4.500 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Efemeride soil bat baino gehiago

Gizonak badoaz, euren lanak
hemen geratzen dira eta gizartearen
oroimena murriztu egiten da denbo-
raren poderioz. Guzti horren ondo-
rioz, belaunaldien eskerroneko ahal-
mena gutxituz doa... belaunaldiaren
azken ordezkariak batera zeharo
ezereztatu arte.

Aurreko lerroaldiaren adierazpe-
na ederki egoki genezake urriaren
lehenengoan ospatzen zen efemeri-
dearekin. Arrasateko orainean hain
era garrantzitsuz eragin zuen "Es-
cuela de Aprendices"-ari buruz ari
naiz, zeinaren berrogetamargarren
urtemuga betetzen den. Eta, aitortu
behar da, ospakizuna (?) ixil ixilean
igaroko zatekeen, belaunaldi horren
azken ordezkarietako batengatik
izan ez balitz. Jose Mari Uranga
historia zaleak gogorarazi du data,
izandakoaren oroitzapena astindu
digularik. Denetariakoak dira gizo-
nak eta denetariakoak euren obrak,
bakoitzari uneko baldintzez epaitu
behar zaiolarik. Orain dela berrogei-
tamar urte Eskola hura sortu zuten
pertsonak bazekiten norantz ari zi-
ren eta helburua erdiesteko zermola-
ko bitartekorik erabili behar zen.
Ezagutzen zituzten, ongi ezagutu
ere!, garaiko Arrasateren premiak
eta nolakotasunak. Eta, ene uste

apalez, ez zebiltzan oker. Apustu
gogorra egin zuten gizonaren alde...
eta etorkizuneko uztaren haziak
erein zituzten, hutsaren truke.

Ingelesek dioten bezala, gober-
nadorearen emaztea hilez gero, eliza
jendez gainezka; gobernadorearen
hiletetara, berriz, ez da zertan azaldu
behar, ez baita inolako etekinik
lortzen. Gaurko honetan, aspaldi
hilik datzan errealitate ohiari nago-
kio.

Bizitzak era guztietako aldaerak
sorterazten ditu edozein
komunitatetan eta Arrasatek berri-
kuntza sakon asko izan du azkeneko
urteotan, industri eta giza mailan
guztiz nabari gertatu direlarik. On-
dorioak, beti, bere garaian harturiko
erabaki eta bertan behera utzitako
aukeren fruitu direnez gero, oraine-
ko errealitatea iraganeko zirkunstan-
tzia multzo bati leporatu behar zaio.
Ez dira gauzak berez sortzen.

"Escuela de Aprendices" gizo-
nen arrago izan genuen bere jaiotza-
tik. Aitzaki eder gure gogoan izan
dezagun, gobernadore haren (gari-
ko errealitate loratsua) agintaritz-
makila estilo desberdina markatu
zuen beste gazteago batengana as-
paldi pasatu zen arren.

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**

Esperantoa dela eta

ARRASATE PRESSen 32. zenbakian Iñaki Ruiz de Gaunak esperantoari buruzko hainbat datu eman zizkigun aditzera, bertako Txandaka sailtxoan.

Bat nator Iñakik dioen guztiarekin, "nork daki, nork daki...?" galdezka hasten den arte. Eta bereziki ez nago konforme esperantoz edonor 50 ordutan mintza daitekeela esaten duenean. Egia da bai, esperantoa hizkuntza asmatua dela eta hizkuntza "handi" edo "oso garatuek" jantzia eta horrek erreztasunaren alde egiten duten abantailak damaizkiola. Salbuespenik ez dago esperantoaren arauetan eta aditz denborak beti osatzen dira era berean, hizkuntza ikas-teko zailtasunak leunduz.

Egitan izan liteke esperantoa munduak duen hizkuntza-arazoaren konponbidea; berez agian bai, baina oraingoz ez da eta beharbada ez da denbora luzean izango, batere borondaterik ez dagoelako inondik inora esperantoa aurrera eramateko.

UNESCOK etabarrek onartuta dago, baina jendeak "modan" dagoena egitera jotzen du. Eta orain inglesa ikastea dago modan. Esperantoa lurralde guztietako "lau txoro"k dakite eta nazioarteko bilerak egiten dituzte eta zorientsuak dira, baina hortik munduko biztanleen harremanetarako komunikabidea izatera...

Esperantoaren inguruko mugimendua oso mugimendu jatorra da, pakezalea, naturazalea etabar, baina ez doa ongi aurrera. Mundu mailako harremanetarako balio lezakeenak, europarren arteko komunikabide moduan ere ez du balio (berez bai, baina ez da erabiltzen). Gauza polita izango litzateke mundu batu eta esperantoduna: bakoitzak bere ama hizkuntza bere herrian, eta denok esperantoz gure mugetatik kanpo.

Orain idatziko dudana ez da atsegina, baina egia da: Gipuzkoan ez dago esperantozko libururik aurkitzerik, Valladolidera jo beharra dago liburuak eskuratzeko. Gipuzkoarrok esperantoa geure kasa ikasi beharra

daukagu bakarkako metodoak eta erabiliz, ikaslekurik ez dagoelako probintzia osoan. Egia da irrati esperantodunak daudela, baina astean hainbat ordutan baino ez dute emititzen. Nazio arteko bileretan, askotan baztertzen du inglesak esperantoa eta esperantodun gehienek "gaizki" edo "oso gaizki" hitzegiten dute esperantoz, normalean jendeak bere ama hizkuntzatik esperantora zuzenean itzultzeko joera daukalako. Maisu esperantodun bikainak daude, baina beren ikasgeletatik pasatuko ikasle askok eta askok galdu egiten dute Zamenhogek artez eta tajuz asmatutako hizkuntza. Ez al dakigu ba euskaldunok zer gertatzen zaion euskaldunberri askori?. Estatu mailako Bilboko esperantozaleen bileran 300 edo 500en bat pertsona baino ez ziren bildu. Eta hasieran aipatu dudana: agian, gaztelera, frantsez, italiera, inglese, latinez, alemanez eta grekeraz dakien pertsonaren bat (horiexek bait dira bereziki esperantoa elikatu duten hizkuntzak) gauza izango da esperantoz 50 ordutan hitz egiten hasteko, baina ez txinar, japoniar, afrikar... edo euskaldun bat.

Tira nik esperantoa neure kasa ikasi nuen eta ez naiz inoiz damutu, atsegina bait da hizkuntza bat zeure ahaleginaz ikastea eta gustokoa dut esperantozko liburuak irakurtzea, baina egia latza da: Euskal Herrian euskaraz (eta espainolez eta frantsez) eta atzerrian... inglese batipat. Ah! Eta beste gauzatxo bat bukatu aurretik: nik ez dut esango esperantodun literaturak 35.000 liburu ez daukanik, baina asko eta asko, zaharkituak, idazmakinez idatziak, grapaz josiak edota gaizki inprimatuak dira.

Ondorioa: nazioen gobernuen adostasuna eta oso bultzada handiak beharko ditu esperantoak, aurrera joko badu; "esperantoa? zer da hori?" galdetu ez dezaten eta "lau txoro"ren gauza izan ez dadin.

Aitor Arana
(esperantozalea)



gili gili
Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK
Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak


Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

Zure eritziz estatuak zergen bidez jasotzen duen dirua ondo inbertitzen du?



Txos Azurmendi
(kazetaria)

Ez du inola ere ondo inbertitzen. Gehien izorratzen nautenak gastu militarrei eta elizari eskaintzen zaizkien dirusailak dira. Diru gutxi eskaintzen dizkiete osasun zerbitzuei, kulturari edota langabeziari.




Josune Gutierrez
Ez da ikusten inbertitzen dutenik.



Arantxa Zabalegi
(etxeakoandrea)

Batzuetan bai, batzuetan ez. Dena dela, berdegune gehiago egin beharko lukeela uste dut.



Floren Garitonaindia
(langilea)


Behar bada bai, behar bada ez. Guk zer dakigu, ba!

L E N I Z


AUTO ESKOLA

ARRASATE TA ESKORIAMATZA.n

TEORIKAK, rako



PRAKTIKAK, rako



**MUSAKOLA
OSTATUA**

- Taberna**
- Jatetxea**
- Bazkariak**
- Bodak**
- Banketeak**
- Gelak**

*Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50*

VICTOR RUIZ MELGAR

Margolaria

Erdiko kale 32, 4.
79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 **ARRASATE**
Tfnoa: 76 19 54 **BERGARA**

“Halakoxea da Euskadin zehar igarotzean trenbideak adierazten duen “Y” greko ospetsua, eta berau bezain ospetsu Deba bailarako errepideak (Eibar-Elgoibar-Eskoriatza) adierazitako “Y” grekoa ere. Inork ere ez daki gauza garbirik: Hasiera eta amaiera-epeak, aurrekontuak, nondik norakoak, etab. Oraindik autopista aitatzen da, Debako “igarobidea” ere bai. Durango-Arrasate-Beasain lotzeko proiektua ere badela dirudi. Gipuzkoako aldizkari ofizialean Bergara-Arrasate lotzeko aurreproiektua egiteko deialdia zabaldu da eta beste bat Eskoriatza-Arlaban saihesbidea egiteko.

Eta trenbideaz zer? Noiz, nondik, zein zabaleratakoa, zer eragin izango du Arrasaten, txistu bizian igaroko al da geratu gabe?

Ba al dakite besterik Udalekoek, Aldundikoek edo Eusko Jaurlaritzakoek?”

*(Juan Leibar, Eskola Politeknikoko irakasleak
“Gorabeherak” orrian)*

“Betirako bizitzera etorri nintzenean Euskal Herrira, orduan erabaki nuen Euskara ikastea (...) Poliki-poliki, neure kontura hasi nintzen “Euskalduntzen” liburuetan ikasten, senarraren laguntzarekin. Arrasatera etorri nintzenean bizitzera, askoz aukera gehiago neukan praktikatzeke, eta ahal nuen leku guztietan erabiltzen nuen, nahiz eta askotan nik ez ongi ulertu bertako euskaldun zaharrei. Inportantea da lehenengo hitzak euskaraz esatea, eta dena zuzen esateko gehiegi ez arduratzea”.

*(Sarah-Jane Turtle, ingelesezko irakasleak
Correo Español egunkarian)*

“Eurovias enpresa, 32.205 milioiko zorra duelarik, kiebran dagoela esan daiteke, eta horretara iritsiko balitz, kiebra edo soldatarik ez ordaintzera, Madrilgo administrazioak hartu beharko luke horren ardurara, abal-emailea bait da. Egoera horretan, ia ezinezkoa da Armiñon-Malzaga autopista tramua egitea”.

*(Ignazio Ipiña. Eusko Jaurlaritzako Herri
lanetako kontseilariak Monterronen)*

Zeintzuk izan dira aurrekontuetako aldaketa nagusiak eta zergatik?

Aurrekontuetan aldaketa ugari eman dira, baina garrantzitsuenak aipatuko ditut. AEDri telebistaren proiektua aurrera ateratzeko behar dituen hamahiru milioi eta zazpirehun milia pta. eman diogu. Diru kopuru hori materiala erosteko emango zaio AEDri. Bestalde, Mendiko Nekazaritzaren beharrei aurre egiteko partida berria ireki da. Udalak 18 milioi eskainiko dio atal honi eta Diputazioak beste 14. Kontusail honen helburua baserrietara ura edota argia, etab. eramatea da. Bestalde, hirigintzan ere aldaketa handiak eman dira, ur-sarea egiteko 10 milioi eskainiko direlarik. Argiteriari ere 17 milioiko aurrekontua eskaini zaio. Aurrekontuen lehen kapituluan, pertsonal sailean ere aldaketa garrantzitsuak eman dira, %5eko igoera espero zen eta %6,1ekoa eman da. Igoera hau lanpostuen balorazioak eta enplegu politikan espero zen baino jende gehiago kontratatu da.

Aldaketa hauek ez diote nahi edota egitasmo berezi bati erantzuten. Onartutako kontusail batzuetan gastu guztia ezin egingo genuela ikusi dugu, Iturripekoak, esaterako. Aurrekontuen moldaketa izan da. Kontusail batzuk premiazko behar batzuei erantzute diete, telebistari eskaini dizkiogunak bezala. Edota momentuko aukera bat aprobetxatu da, Natur-gas-ek gasa sartzeko egiten ari diren lanak aprobetxatu ditugu ura eta argia era batera sartzeko.

*Xabier Lasaga
Udaleko Finantza batzordeburua*



FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTROAK

PINTURA ETA MARRAZKIGINTZA

Urriaren 10an. 6,30etan

ZERAMIKA

Urriaren 16an. 6,30etan

SUKALDARITZA

Urriaren 16an. 6,30etan

ESKULANAK-LARRU LANKETA

Urriaren 18an. 6,30etan


OTZARAGINTZA

Urriaren 20an. 3,30etan

Gimnasia 10,30etatik 11,30etara. Astean birritan.

MATRIKULA ZAITEZ!!!

Ordutegia: 3,30etatik 8etara



Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura
etxeko ekipamendu osoa
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKO ETA APAINZAILA TITULATUAK DAUZKAGU

amuebladora




mondragonesa

Santamaina kalea 36, Tlfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE

Zabalik gaude!!
Erakusketa berria

*Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.
Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi*

Aldean eraman alde guztietara



• Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko.

Diru-arazorik ez izateko.

Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.

Ordu-arazorik gabe.

Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.

GK Txartela duzu praktikoena.

Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.

Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

- Caribaiko Sukurtsala
 - Zigarrolako Sukurtsala
 - Munareko Sukurtsala
-

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

prentsaren begia

OSTIRALA 29

CORREO: "Arrasateko Udalbatzak bere politika fiskala definitzen duen ordenantza kuadro berria onar dezake gaur".

DEIA: "Gaur arratsaldeko udal plenorako gaiak".

DV: "Arrasate- Bergara autobiak eta Arlaban eta Kanpazar iraganbideek Deba garaiko garraiobideak hobetuko".

EGIN: "Debako iraganbideari buruzko proiektuak atzo aurkeztu Monterronen".

LARUNBATA 30

CORREO: "Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Oñatiko 2.000 familiak gasa instalatzeko obrak geratzeko eskatu".

DEIA: "Deba Garaian garraiobideak hobetu".

DV: "Ipar-hegoa" iraganbideko errepide gehienak 1993rako amaituko".

EGIN: "Auzotarrek laguntza eskatu alderdi politikoei gas naturala gaiaren inguruan".

IGANDEA 1

CORREO: "11 botok ordenantza fiskal berriak onartu".

DV: "Jose Maria Bengoa pasionista, gerra zibilean afusilatua, gaur beatifikatuko Aita Santuak".

EGIN: "Udalak udazkenerako kultur programazio zabala antolatu".

ASTELEHENA 2

CORREO: "Arrasateko Udalak Udalako Ingurugiro Eskola datorren urterako martxan jarri gura".

ASTEARTEA 3

CORREO: "Foru Aldundiak Arrasate-Bergara autobia eta Arlabango saihebidetaren aurreproiektuak enkargatu".

DEIA: "Zenbait hitzaldi Jeltzaleen Asteazkenean".

DV: "Udal zergek %6ko igoera izango 1990ean".

EGIN: "PSOEek TB. lokaleko proiektua "burutapen ausarta" kalifikatu".

G.E: "Arrasaten (Arte Hamabostaldia) amaiturik".

AZTEAZKENA 4

CORREO: "Arrasateko Udalak alkohol eta tabakoaren kontsumoari buruzko mugapenak zorrozki aplikatuko".

DEIA: "Zinea, Liburu-azoka eta antzerkia udazkenerako".

DV: "Udal Elkartea Takoloko bilketa-zerbitzuak arduratuko".

EGIN: "Oso baikortzat jo dute antolatzaileek bukatu berria den Arte hamabostaldiaren lehen fasea".

G.E: "Arrasateko Kultura Batzordeak programa berezia antolatu du".

OSTEGUNA 5

CORREO: "Deba Garaiko Udal Elkarreak asteartean aztertuko".

errepide-planaren aurrelaburpena eta inguruan izango duen eragina".

DEIA: "Larunbat honetan Gervais Memoriala izango".

DV: "Urriaren 29ko hauteskundeetako 31 mahaien konposaketa".

EGIN: "Arrasate Telebista, Udalaren laguntza duen komunikabide pribatua".

Usteak uste...

Bederatzi urte igaro dira azkenegoz udal pleno batean egon nintzenetik. Ardantza zen orduan alkate, bere partiduen erabateko gehiengoaren laguntzaz. Oposizioan Goirizelaia, Lana, Yarza eta Mikel Larunbe, besteak beste. Hauek, egia esan, berba egiteaz gain esperantza gutxi ohi zuten, eztabaidak amaitu ostean gehiengoaren txilindroia pasatzen bait zen, eta hurrengora.

Joan den ostiraleko plenoak antzetzoki desberdina zuen, Monterroneko irakurgela nagusia.

Konparatzen hasiz gero, esango nuke 1980ko aurpegi haietatik gutxi gelditzen direla, Lana eta Mendiartaz uste dut, bai gobernuan zein oposizioan. Plenoa ez zitzaidan hain doinubakarra iruditu, akaso txilindroia egoteko arrazoia desagertu egin delako.

Euskara ere gehiago entzun nuen. Itzultzaileak birritan hartu behar izan zuen parte, sozialistek horrela eskatuta, euskeratik erderara itzultzeko.

Aipatu plenoan berba asko egin zuten gure zinegotziek, zeuden zinta gehienak ia agortu arte. Denetara bi ordu eta laurden izan zuen bilerak. Zinegotzi batek zenbaiten begirada harrituen artean, Gandiagaren poema bat ozenki irakurtzeko astia topatu zuen. Guzti hori hiru komunikabidetako ordezkariak geundela. Beste ikuslerik ez zegoen. Pentsa ezazue Arrasateko telebista sortzen denean inoiz plenoak grabatzen badira zermolakoak ikusi eta entzun beharko ditugun. Jainkoak konfesatuta harrapa gaitzala.

Jose Aranzabal


ENARA
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Trapo's

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38
ARRASATE



PEÑACOBATA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

Ana Toledok "Cum Laude"

Donostiako EUTGn aurkeztu zuen tesi doktora 'cum laude' kalifikazioa merezi izan zuen. Izenburua "Domingo Agirrerren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa", 1.200 foliotan aurkeztua. Epaimahaiari Jean Haritschelar, I. Sarasola, J. Azurmendi, P. Altuna eta Juan Mari Lekuona.

Ana Toledo Antzuolako Iriarte baserrian jaio zen. Hispanicas eta Magisteritzaz gain, lizentziatua da Euskal Filologian. Andereño izan zen Zurriolako ikastolan. UZEIn ere hiru urte eman zituen hiztegi gintzan. 1983tik aurrera EUTGn ari da "Literatur kritika eta Euskal Testuak" irakasten. Orain Zarautzen bizi da




Jose Juan Gonzalez de Txabarriekin ezkontuta. Zorionak.

Lehen Ipuinak

Ihardun argitaletxea sortu berri da Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

Oraingo honetan Lehen Ipuinak saila aurkeztu digute, literatura unibertsaleko bost ipuin liburu-rekin: *Hiru gurariak*, *Marraski-
loa*, *Lore erromaniola*, *Txanogorritxo* eta *Mari Errauskin*.

Itzulpenak Itñaki Mendiguren eta Agur Miren Meabek eginak, Kataluñako Abril argitaletxearen laguntzaz. Salgai liburudendetan.



Jazten argitarapena jaio

Apirilean hiru egunetako hitzaldi sorta antolatu zuen AEDk Txepetxen "Un futuro para nuestro pueblo" liburuaren inguruan. Orain dugu aukera berbaldi haietan esandakoak irakurtzeko AEDren "kultur iharduerak" azpitaldeak argitaratutako *Jazten* argitarapenaren orrialdeetan. Julen Arejolaleiba da aldizkari honen bultzatzaile kementsua eta Goio Arana, gure lankidea, maketa ederraren egilea. Zorionak eta urte askotarako!

X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteoporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-14 09 00


TALLERES AGA, S.A

Zerreilgintza aratzeko gaiak

Legarre pabiloi industrialia
Tfnoa: 79 02 22
ARRASATE



Alfonso X. Jakintsua, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE



Biharko Iturripe

Arrasateko Udalak 191 milioiko aurrekontua onartu du etorkizunean kiroldegia Iturripen eraikitzeko. Joan zen astean Alkateak eta Alfonso Gorroñogoiak sinatutako Akordioaren arabera, GIZABIDEAK Iturripeko instalazioak lagatzen dizkio Udalari. Zati bat betirako, beste bat berrogei

urterako, eta hirugarrena hiru urterako.

Egitasmoak, hainbat kirol erantzuna ematea bilatzen du. Besteak beste zera joango da: Atletismo pista, futbitoia, bi tenis kantxa, bi saskibaloia pista, eskubaloia, ikusleentzako harmailak, eta jaurtiketa eta jauziak egiteko guneak, guztiak ere aire zabalean.

Horretaz gain, kiroldegi estalia ere, 1.800 m² eta azken orduko prestakuntzekin: Hall-a, kirol-pista, aldagelak, taberna, biltegia, harmailak... 60 kotxerentzat aparkalekua eraikiko da, eta hainbat lorategi ere apaingarri bezala. Berri ona, beraz, Arrasaten dauden kirolzale guztientzat.

Bazen garaia ezta ?


Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

Otalora 2, ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



Proiektorearen planoan



Ipiñaren prentsaurrekoan

24.000 milioi errepideetan

Azkenean uko egin zaio Maltzaga-Armiñon autopistari

X. Zubizarreta, I. Ipiña (Obra publikoetako sailburuordea), M. Maldonado (Herri Lanetako zuzendari nagusia) eta I. de Francisco (plan orokorra idatzi duen injinerua) izan genituen Monterronen, Euskal Herriko errepideei buruzko egitasmoaren laburpena aurkezteko.

Egitasmoak, oso-oso ukitzen ditu Arrasateko inguruak. Alde bate-tik, Arabarekin lotuko gaituen saihe-sbidea; Arlaban gaina zeharkatu eta baztertua dagoen Maltzaga-Arminon autopistak eduki

behar zuen ibilbide bera izango du.

Bestetik, Durango-Bergara-Beasain proiektuaren bame dagozkigun bi zati: Arrasate eta Bergarako barianteak lotzeko egingo den sa-hiesbide zatia; bigarrena, Epeletik hasi eta Sara baserriraino egingo dena (eta baserri honetan hasiko da Kan-pazar zeharkatuko duen tunela.

Egitasmoa 1993rako burutu nahi da, helburu argi batekin: Deba Ga-raiak eta Euskal Herriak orokorrean behar-beharrezko dituen komuni-kabide egokiak definitiboki lortzea.

Neurri berriak Takolorako

Azken aldi honetan zabor isurtegi desberdinetan zeuden arazoak, konpondu guran, Arrasateko Udalak urriaren 2ko bilkuran atzeratzea erabaki du Meatzerr-kan errejeta kontrolatuak egiteko erabakia.

Takoloko isurtegia itxita ze-goela zioen albisteaz, bestalde, Arrasateko alkateak ohar bat ka-leratu du hori gezurtatuz. Isurte-gia badabil dio oharrak eta hobeto ibil daitezten neurri egokiak hartu dira, hala nola, edukiontziak dau-den lekuko zorua lau-lau jarri eta txukundu, bakoitzera bota daitez-keen hondakingaien arabera ba-naketa egin eta garbi adierazi zer non utzi, Udal Elkarteak kamioi egokia erosi, etab.

JAIOTZAK

Mendizabal Agirre-Garcia Garazi
Irailaren 25ean
Maria Martín Raul 28an
Carrillo Agirre Garazi 28an
Gómez Gómez Oihane 29an
Zabaleta Benitez Eneko
Urriaren 2an

EZKONTZAK

Julian Hermosel Rodriguez &
M^a Luz Ramos Dominguez
Irailaren 30ean



comercial SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA

*Ekipamendu eta programak
*Telemandua

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR

Udalak 53 langile kontratatu

1989an enplegua sustatzeko programaren barruan

POSTUA	KONTRATU-MOTA	AUKERATUAK
A. Press - Publizista	egun osoa	Ruth Otaduy
A. Press - Kazetaria	egun osoa	Jon Andueza
A. Press - Kazetaria	egun osoa	Bego Zubia
A. Press - Maketaria	egun osoa	Goio Arana
Delineantea	egun erdia	Brigida Uribe
H. Fisikoko monitoreak	egun osoa	Miren Saiz
H. Fisikoko monitoreak	egun osoa	Esther Abad
H. Fisikoko monitoreak	egun osoa	Julio Ajuria
Ind. Injineru teknikoa	egun osoa	M ^a Concepción Saiz
Ekonomista diplomatua	egun erdia	Joseba Ezpeleta
Injineru Agonomo tekn.	egun osoa	Amaia Arana
Iturgina	egun osoa	Angel Egia
Iturgin-peoia	egun osoa	Fernando Saz
Pintore-ikasleak	formazioa	M ^a Esther Martin
Pintore-ikasleak	formazioa	M ^a Dolores Jorge
Pintore-ikasleak	formazioa	Ana M ^a Olmo
Pintore-ikasleak	formazioa	Inés Sanchez
Pintore-ikasleak	formazioa	Maite Fuentes
Pintore-ikasleak	formazioa	Alicia Delgado
Pintore-ikasleak	formazioa	M ^a Belen Lopez
Pintore-ikasleak	formazioa	Ana M ^a Sanchez
Pintore-ikasleak	formazioa	Roberto Garcia
Pintore-ikasleak	formazioa	Jose Javier Garrido
Pintore-ikasleak	formazioa	M ^a Idoia Gomez
Pintore-ikasleak	formazioa	M ^a Carmen Morales
Pintore-ikasleak	formazioa	Marta Gonzalez
Udaltzain laguntzaileak	egun erdia	Eduarne Uranga
Udaltzain laguntzaileak	egun erdia	M ^a Angeles Elorza
Administrari laguntzailea	egun erdia	Josune Viteri
Administrari laguntzailea	egun erdia	Eskame Garitaonandia
Haur-bibliotekaria	egun erdia	Miren Urrikalde
Hezkuntz animatzailea	egun osoa	Elena Lasa
Telebistako postuak	egun osoa	Andoni Urcelay



Nekazaritzaren egoera ere aztergai izango


Telebistako postuak	egun osoa	Jasone Diaz de Guereñu
Telebistako postuak	egun osoa	Javier Arana
Telebistako postuak	egun osoa	Iban Ayesa
Gizarte-langileak	egun erdia	M ^a Raquel Marrodan
Gizarte-langileak	egun erdia	Begoña Barrera
Ludotekariak	egun erdia	Esperanza Nuño
Ludotekariak	egun erdia	Izaskun Etxabe
Gazte-animatzailea	egun erdia	Miren Karnele Aspiazu
Gizarte-laguntzailea	egun erdia	M ^a Luisa Peña
Informatika operatzailea	egun erdi	Garbiñe Saez de Gordoa
Maisua (Udala)	egun erdia	M ^a Candelas Fernandez
Bibliotekariak	egun erdia	Isabel Barrutia
Bibliotekariak	egun erdia	Ana Bastarretxea
Lehen Sektorearen Azterketa		Patxi Montero
Industriaren Azterketa		Heriberto Lasa
Zerbitzuen Azterketa		Zorione Garitano
Eskolaz kanpoko ekintzen azterketa		Jose A. Azurmendi

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



Ikastolako kirolgunea

Uztailean hasi zituzten ikastolako kanpa berristeko obrak. Asmoa, kirolgune estalia egitea, eta bere sapaia aprobetxatzea, orain arteko kanparen funtzioak betetzeko. Horren aldamenean aretoa eraiki nahi dute, bertan klaustro eta bilerak egiteko.

40 milioiko aurrekontuaz, soluzioa izan daiteke Gazteluondon dauden 400 ikasleentzat, bai errekreoa eta bai kirolak egiteko orduan. Dena den, Uribarrin eta Ferialean gelditzen diren umeak oraindik ere egoera eskaxean aurkituko dira.



Alkohola eta tabakoa murriztu

Udal administrazioak arau berriak eman

Alkohol eta Tabako kontsumoari dagokionean, ordenantza berria kaleratu du Udal Administrazioak. Ordenantza Udal barrutian aplikatuko da; eta bere xedea zera da, alkohol edari eta tabako kontsumoaren aurrean Udal ihardueraren arautzea.

Administrazioak hurrengo artikuluetan biltzen diren neurriak hartuko ditu: kontsumoa murriztekoak, hiritarrak sensibilizatzekoak, hiritarren kolaborazioa bultzatzekoak, eta administrazioen arteko koordina-

ziozkoak.

Gauzak horrela, Udal administrazioaren zentro edo establezimendu guztietan, eta Udalak berak bururiko ekintzetan hurrengo neurriak hartuko dira:

* 18 urtetik beherakoei ez zaie alcoholdun edaririk zabalduko

* Ez da 18 gradutatik gorako edaririk zabalduko

* Ez da alcoholdun edaririk ez tabakorik zabalduko makina automatikoen bidez.

Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



Urrirako kultur programazioa

Filmeak, antzerkiak, liburu azoka, Imanolen kantaldia...

Arrasateko Udalak, Kultura Bazardearen bitartez hainbat ekintza antolatu ditu urrirako. Programazio osoa, honako hau litzateke:

Urriaren 5ean, osteguna, arratsaldeko 8'30etan, Amaia antzokian. Joe D'amatoren "Once días, once noches" filmea ikusteko aukera.

Urriaren 9tik 15arte, Garibai Etorbidean Liburu azoka.

Urriaren 12an, osteguna, eguerdiko ordu batean, Elgoibarko musika bandaren kontzertua Monterron parkean. Euria eginez gero, Amaia antzokian izango da.

Urriaren 14ean, larunbata, arratsaldeko 6etan, umeentzako antzer-

kia Garibai etorbidean.

Urriaren 19an, osteguna, arratsaldeko 8'30etan, zinema Amaia antzokian. Ken Russell zuzendariaren "Gothic" filmea.

Urriaren 21ean, larunbata, gaueko 10'30etan, Amaia antzokian. "Teatro Gasteiz" taldearen "Todas tenemos la misma historia" obra.

Urriaren 26an, osteguna, arratsaldeko 8'30etan zinema Amaia Antzokian. Filmea, Stephen Frears zuzendariaren "Sammy y Rosie duermen juntos".

Eta bukatzeko, 28an, larunbata, Imanolen kantaldia, Amaia antzokian gaueko 10'30etan.

Mozioa HBren aurka

EA, EAJ, EE eta PSOE partidu politikoek mozio bat aurkeztu zuten joan den ostiraleko plenoan. Zera zioen hiru puntutako mozioak:

1. HBk bultzatutako talde txiki batzuk egin dituzten ekintza bandalikoan aurrean gure kondena adierazi.

2. Ekintza hauen aurrean alkatearen jokaerari gure ezadostasuna adierazi, edozein modutan ere, bere egunean Arrasate herriari egindako promesatik urrun gertzen da, arrasatear guztien alkatea izango zela, alegia.

3. Salaketa honekin bat datozen Arrasateko talde eta kolektibo guztiak salaketa hau bere egiteko gonbidatu.

Alkateak erantzun zuenean, badirela beste bortxakeria mota batzuk ere, poliziak azken atxilotetetan erakutsi duena adibidez, eta herri honetan ematen den bortxakeriaren arrazoia kanpotik datorren bortxakerian dagoela.

Mozio honen berri prentsan izan zuelako nahigabea adierazi ondoren, botazioa egin zen, aipatu mozioa aurrera atera zelarik, sinatzaileen botoei esker.

Arrasatearrok adi!

ARGA altzariak

eraberritze-obrak direla eta, beherapen handiak prezioetan

Zerkaosteta 15, Tfnoa: 79 07 76 Arrasate

BRANKA
JATETXEA

Eguneko menua
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10




BELUN
TABERNA

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

T x a n d a k a

Arrasateko euskaraz



J.L. Ormaetxea*

Arrasaten dagoeneko lau hankakoek ere badakite bikook (euskaraz lehen hizkuntza dugunok, gutxienez) euskaraz berba egitean bizkaieraz mintzo garelako. Gehiago zehaztuz, eta horretaz arduratu izan diren hizkuntzalarien esanak aintzat hartzen baditugu, esan behar bizkaieran bereizten diren hiru azpieuskalkien artean - Mendebaldekoa, Ekialdekoa eta Gipuzkoakoa -, azken honetan sartzen dela Mondragoeko hizkera.

Kontu guzti hauek maisuki aztertu eta azaldu zituen duela 120 urte Louis Lucien Bonapartek (Napoleon ospetsuaren lobak).

Beste gauza bat litzateke Bonaparteren garaiko eta gaurregungo Arrasateko euskararen egoera soziolinguistikoak erkatuko bagenu. Gu galtzaile, zalantzarik gabe. Eta zer esanik ez euskararen erabileraz! Baina ez nadin gaitik alden du.

Gipuzkoako bizkaieran bi hizkera bereizten ditugu: a) Bergarakoa (Bergara, Eibar, Elgeta, Oñati, Soraluze); b) Gatzagakoa (Gatzaga, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate eta Aramaio).

Esango nuke Leintz bailaran berdintsu hitzegiten dugula, herriatik herrira desberdintasun txiki batzuek badiren arren. Baina Arrasate-tik gertu ditugun Oñati edo Bergarako euskararekin parekatzea badugu gurea, berehala ohartuko gara diferentzia batzuek (fonetika arloan, aditzean, edo hizkuntzalari-tzaz ezer gutxi dakienari ere hain kurioso eta deigarri egiten zaion

lexikoan).

Gure Barandiaran mirengarriak sarritan aipatu du irakasleren batek gaztetan ohartarazi ziona: lehenbizi norberaren ingurua ezagutu behar dela, gero bestetara hedatzeko.

Ez ote dugu guk ere, era berean, geure euskaraz ezagutu, ikasi,

aztertu eta ezagutarazi behar? Baietzear nago. Hilaginean dagoen altxorra ez badugu ahalik eta lasterren batzen, galdu egin daiteke.

Azkuek bere hiztegian Arrasateko hitz mordoak bildu zuen. Gaurregun, beharbada, berba horietarik zenbait galduak izango dira, jakina baita tresnaren desagertzearekin hitza ere galtzen dela sarri...

Oraindik, alabaina, gure zaharren ahoetatik euskaraz bizi eta abertzaleentzako parada daukagu.

Hil honetan betetzen da urtea Bergarako euskera izeneko liburua argitaratu zenetik. Talde lanean egindako lan ona eta polita. Bergarako euskararen gaineko ezinbesteko erreferentzia.

Arrasatearrok ere ez ote genuke horrelako zerbait egin beharko?. Iaz talde bat osatu zen Arrasateko euskaraz aztertzeko asmotan, baina arrazoi batzuek medio ez du aurrera egin.

Bukatzeke, beraz, horra nire deia: lana eitteko astixe eta gogoe dauken talde bat osatu daigun, geuk ez bajunau/juau eitten, etxon/etxok iñok eingo ta.

(*) Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea

Ularcon euskara frogak

Ularcon laster 200 bazkide berri hartu behar dituela eta, izena emanda zuten 120ri euskarazko azterketa egin zaie, ezagupenak hiru mailaren arabera puntuatuz.

Aztertzaileak Udal Euskaltegiko irakasleak eta HABEko zenbait ikuskatzaile izan dira. Txarto dabil-tzan kooperatibetatik datozenei eta EGA ditenei ez zaie froga hau egin.

Euskara puntuatu ondoren, gairontzeko puntuazioak egiten ari dira, 200 lan-bazkide berrien zerrenda osatu arte.

Jesus Altube arrasatearra

Sebero Altube zenaren loba, irailaren 26an hil zen Bartzelonan, 79 urte zituela. Katalunian bizi den euskaldun asko bildu zen Jesusen hiletetara, txistulariak eta guzti Jesusen aitak, Benigno Altube, dul-zaina jotzen zuen.

Udal zergak gora

Joan den ostiraleko plenoak PSOE eta EAren kontrako botoez onartu zuenez, datorren urterako zergak %6an igoko dira. Haziendako Batzordeburuak azaldu zuenez, Gipuzkoan egingo den baxuenetakoa izateaz gain, %6ko igoera oso arrazionekoa da. Horren aurrean, PSOEek salatu egin zuen igoera, iaz bezala aurten ere seguruenik inbertsio asko ez bait da egingo.

Arrasateko AEK

Aurtengo kurtsoari hasiera emateko, matrikula epea zabalik dago oraindik ere Arrasateko AEKn. Izen eman nahi duzenok dei egin 79 71 12 tnora, AEKk Erdiko ka-lean dituen bulegoetara.

ATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta TURBO-DIESEL INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Izen propioak

Uztaileko ezkontzekin segitzen dugu. 22an, larunbatez, Kepa Antxia eta Arantzazu Uribetxeberria Arantzazun ezkondu ziren, non bestela? Zorionik beroenak.



Epelde

█ Begoña Markaide, 41, Eskola Politeknikoko Injinerutza, Institutu Politekniko eta Goier-ko idazkari berria. Eskolan daramatzen ia 25 urtetatik, hamahiru Idazkaritza Orokorrean eman zituen eta hamaika Hezibide Elkartean.

█ Juan Martin Elexpuru, 39, idazle uberarrak "Txakur zaunkak atean" ipuin liburua argitaratu berri du. Juan Martinek astero "Zelebrequerixak" idazten ditu Arrasate Pressen. Dagoeneko hainbat itzulpen liburu argitaratu du, baita eskola liburuak ere. "Bergarako euskara" liburuan ere parte hartu zuen.

█ Imanol Galdos, 25, Kilometroak 89ko erakundeak izan duen prentsa arduradun prestua. Bere taldeak egindako lana berehala igarri zen prentsa mailan. Imanol Euskal Filologia ari da ikasten Gasteizen. Lau urtez Oñatiko Udaleko Euskara Zerbitzuan egin zuen lana.


█ Joserra Gartzia, 35, idazle-aurkezle legazpiarrak "Bertso Galaxia" atera du 5. eta 6. mailetan erabiltzeko, liburua eta zinta batera datorzelarik. Ortz-8 espaziuntzian Demetrio Neurritzabal bertsolaria, Riki Albistegi kazetaria eta Moko loritza doaz, galaxietan barrena bertsozaletasuna pizteko eta zabaltzeko asmoz. Joserrak S. Frantzisko Xabier ikastolan irakatsi zuen lau urtez.

█ Miren Gurutze Arana, 28, Bergarako San Martin de Agirre ikastetxeko zuzendari berria. Miren Gurutzek bost urte darama S. Martin Eskolan. Aurretiaz Bergarako ikastolan ere beste bi urtez aritu zen. Magisteritza Eskoriatzan ikasi zuen, Filologia adarrean.

Arrasate Atletiko Taldeak XI. Herri Krossa antolatu du iganderako. 10 Km., ondoan duzuen zirkuitoari 2 itzuli emanez. Proba 11'30etan hasiko da, Loramendi kalean. Inskripzioa, 200 pta.; orduete eta 15 minutu proba amaitzeko.



zirkuitu honi bi buelta



Datorren ostegunean, urriaren 12an Udalaitez eguna ospatuko da. 8'30etan irteera Udala plazatik, eta 11etan Meza Santua Udalaitez puntan. Aurtengo ekintzak, Nikolas Agirre Larrañagaren omenez izango dira.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE




KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Ibili, ez dizu kalterik egingo

Ibiltzea, gure artean zabaltzen ari den zaletasuna

Kirola egiteko ez dago derrigorrez kiroldegira joan beharrik eta herriko edota hobeki esanda bailarako emakume eta gizon askok, inguruetatik zehar ibiltzea aukeratu du bere eguneroko eginbehar garrantzitsutzat. Arratsaldeko lehen orduetatik hasita ibiltari hauek, zapatilak aldean dituztela, motel edota arin, gure herriko errepideetan zehar harat honat ikusiko ditugu.



Askok Urkulu aukeratu du paseatzeko

Ibilbide ugari, baina gutxi egokiak

Arratsaldeko lehen orduetan, etxetik irten eta herri inguruetatik zehar osteratxoa emanez gero, herritik kanpo eramaten gaituzten errepide guztietako ertzak, oinez doazen emakumez beteta ikusiko ditugu. Kirol hau gizonezkoek ere egiten badute, esan beharra dago, honetan behintzat, emakumeak direla nagusi. Osteratxo hauek egitera, emakumeak koadrilan joan ohi dira eta oro har adin ertainekoak izan ohi dira. Karmenek honako hau zioen *“guk, jadanik bost urte daramatzagu arratsaldetan osteratxoa egiten. Irailean, haurrak eskolara joaten hasten direnean ekiten diegu ibilaldiei eta ekaina arte, egunero egunero abiatzen gara. Behar bada, egunen batean eguraldia oso eskasa delako edo, ez gara abiatuko baina osterantzean, egunero”*

Osteratxo hauek egiteko, ibilbide lauak aukeratu ohi dituzte gehienetan oinezkoek. Arrasatearrek gehien erabiltzen dituzten ibilbideak, Garagartzara edota Aretxabaletara doa-

zen errepideak dira. Orain gutxi arte, Arrasateetik San Prudentzio bitarteko trenbide zaharra ere erabili ohi zuten, baina Zigarrolan eraikitzen ari diren industrialdearen ondorioz hondatuta dago trenbidea, desagertu egin delarik ibilbide hau.

Egunero ibiltzera joaten diren emakume batzuekin hitz egiteko aukera izan dugu eta denek ibilbide lasai eta on baten beharra azaldu

digute. Trenbideak izan dira orain arte ibilbide lasai eta erosoan, kotxeetatik urrun, oinezkoek lasai eta ke eta zaratatetik urrun ibiltzeko aukera zuten eta. Edozein modutan ere, sahiesbide edota industrialdeen erakuntzaren eraginez, desagertu egin da lasaitasuna. Meka parean sahiesbideak duen sarreraren eraginez, emakumeak oinez doazela, errepidea zeharkatu beharrean aurkitzen dira, askotan egoera oso arriskutsuekin egiten dutelarik topo. Bestalde, Garagartzara joatea erabakitzen dutenak, errepide ertzetik joan beharrean aurkitzen dira, ke artean ibiltzera behartuta daudelarik. *“Ez dakigu nork hartu beharko zukeen honen ardura, baina hau konpontzen norbait saiatu beharko litzateke. Askotan beldurra ere pasatzen dugu errepidea zeharkatzean. Oinezkoentzako ibilbide aproposa egin beharko lukete”*

Beste herri batzuetan, Bergaran edota Aretxabaletan, gure inguruko bi herri aipatzearen, trenbideak oinezkoek erabiltzeko eran gorede dituzte, inolako arriskurik edota kerik gabe ibiltzeko aukera esekainiz.

“Norbait arduratu beharko litzateke oinezkoentzat ibilbide on eta aproposak egiteaz”

Urkulu, oinezkoen paradisu

Bailaran, Urkulu dugu oinezkoen paradisu. Nahiz eta bertara kotxez joan beharra egon, bertan lasaitasun osoz ibiltzeko aukera dago. Urkulura mendiz joateko aukera ere bada, baina honek, arratsalde osoa ibiltzeari eskaintzea eskatuko luke, eta emakume hauen osteratxoa, egunero ordubete ingurukoa izan ohi da. Dena dela, Urkulu asteburuatako

oinezkoek dute atseginen, jai egunak izatean jendeari ez bait dio arduraren denbora joan etorrietan galtzea.


Zergatik ibili ?

Kirol honi ekiteko orduan arrazoi ugari egon daitezke, osasun arazoak direla medio osagilearen agindua, soberan dauden kiloak aldetik kentzeko asmoa edota norberaren burua arin eta zaluago ikusteko nahia. Beraiek azaldu digutenez, edozein izanda ere eguneroko eginbehar hau hartzera bultzatu dituen arrazoiak, beren gorputza arinago sentitzen dutelako segitzen dute horretan. Askok eta askok pisua kentzeko ekin izan diola adierazi digute, baina kirolaren ondorioz gehiago jaten dutenez, ez omen da pisu gehiegirik kentzen.

Horretaz gain, arratsaldeko zenbait ordu, bat besterik ez bada ere, lagunekin etxeko eginbeharretatik urrun pasatzeko aitzakia bikaina da hau.

Bihotzeko edota zirkulazio eritasunen batez jota dagoen jendea izan ohi da sarritan, kirol honi ekiten diona. Ibilbide hauek zenbaiten

baino lehen medikuarengana jo eta errekonozimendu ona egitea gomendagarria da. Duela zenbait urte, zenbait erakundetatik jendea korrika egitera animatu zen, ezusteko bat baino gehiago izan zirelarik. Honen



Gomendagarria da osagileari bisita egitea ezertan hasi baino lehen

arrazoiak azaltzen oso erraza da. Zenbaitek bihotzeko gaitzen bat, arteriosklerosia esaterako, izan dezake eta konturatu gabe bizi; bere eguneroko eginbeharretarako nahi-

Eukeni Olabarieta sendagileak adierazi digunez, kirola egitea oso ona da, baina beronek baldintza batzuk bete behar ditu bihotza babesteko balioko badu. Paseoan aritu beharra dago, baina arintasunez, hau da,

pausu oso motelean aritzeak ez du ezertarako balio. Bestalde, erregulartasunez egin beharra dago, gutxienez astean hiru aldiz, eta ibilaldiek 35 minutu edo 40 minututik gora iraun behar dute.

Olabarieta sendagileak, burutu berri diren kirol-medikuntz ihardunaldi batzuetan, honen inguruko tesia aurkeztu du. Tesia burutzeko, bostehun pertsona ikertu dituzte eta atera dituzten ondorioen arabera, kirola egunero egitean, pisua galdu, gorputzeko gantza gutxitu, tentsioa jaitsi eta lipidoen perfila—odolean kolesterol, triglizerido etab.en presentzia— hobetu egiten da. Beraz, osteratxo hauek egitea batere kaltegarria ez dela nahiko garbi ikus dezakegu. Edozelan ere, ibilbide hobetxoetatik zehar ibiltzeko aukera izatea ez litzateke batere gaizki egongo.

Kirola aspaldi egin gabe egonez gero, ezusterik ez hartzeko, hobe hasi baino lehen osagilearengana jo

ahotan "infarto bideak" goitzenaz ezagutzen dira, eritasun honetaz jota dagoen jende ugari egiten bait du kirol hau.

Gauza guztietan bezala, kontuz ibiltzea hobeto

Edozelan ere, kirolik egin gabe denbora luzea badaramazue edota inoiz egin ez baduzue, ezertan hasi

ko odol heltzen bait zaio bihotzera. Kirola egiteari ekitean, berriz, bere bihotzak ohizkoa baino odol gehiago eskatuko dio eta gorputzak, behar bada, ezingo dio odol estra hori eman.

Beraz, inoiz kirolik egin ez baduzue, egiten hasi baino lehen osagileari ikustalditxoa egitera joatea hobeto.



Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.

Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

HITZALDIA

Gaia: "HERRIALDE SOZIALISTEN EGOERA"

- * Nazionalitateak
- * Merkatu plangintza
- * Partaidetasuna

Hizlaria: **PABLO SASTRE** (ARGIAko nazioarteko arduraduna)

Eguna: **Urriak 9, astelehena**

Ordua: **Arratsaldeko 7etan**

Lekua: **MONTERRON Kultur Etxea**

Gai bera sakontzeko mintegi bat antolatuko du urriaren 16tik aurrera. Informazio gehiago hitzaldi egunean emango da.

Herri sozialistetara bidaiatu duzuenok, batez ere, elkar animatu eta etorri !!!



Zeuk hartu!



HELDUEN NUTRIZIO KANPAINA

✓ Zeuk hartutakotik ematea baino hoberik ba ote dago?

✓ Ematekotan, ez eman edozein modutakoa, eta txikitan ikasi zenuena galdu duzulako ez laga euskaraz egiteari. Oraintxe duzu hobetzeko aukera.

✓ Ez da aparteko ahalegina. Zer dira bizitzan 180 ordu? Helburuaren garrantzia, laguntza eta jasoko duzun eskerrona izan itzazu kontutan.

✓ Ez gelditu euskaraz erdipurdika eta kilikolo. Izan zaitez euskaldun oso.

Eska ezazu informazioa zure Udaletxean



Pedro Luis



Maritxuren nondik norakoaz

Aurtengoarekin 13 bider abestu zaio txikiteroen patroiarri

Xabier Letona

U rtero moduan, Maritxu aurreko egunetan, traje, soineko, afari eta abarren inguruko berriketa da nagusi Arrasateko tabernetan, eta batez ere gazte jendearen artean. Baina, nondik ote dator Maritxu Kajoi?. Antza, Pepe Txantxote izeneko txikitero batek "Por Maritxu"! oihukatzen zuen txikito batera gonbidatzen zuten bakoitzean, eta tragua joan, tragua etorri, gazte koadrilek berehala topatu zuten aitzakia "Maritxu txikiteroen patroia izango da, eta beraz, jai bat behar du". 70. hamarkadaren hasierako kontuak dira hauek, jaia ez zen gauzatuko 77ra arte. Aurreko urteetan ere ahalegin handiak egin zituzten berau aurrera ateratzeko, baina garai haietako gertakizun politikoek lehendabizi -75eko afusilamenduak-

eta On Jose Luis Ifarra Arrasateko parrokuaren heriotzak gero -76an- porrotera bidali zituzten ahalegin horiek. Azkenean, 77ko urriaren lehenengo ostiralean ospatu zen jaia, parroko berriaren desadostasuna zela eta kajoi barik gainera. Une historiko hura bizi izan zutenen esanetan "ez beldur barik, herriko alderdi tradizionalistetatik boikot ekintzaren bat espero bait genuen", 78an egin zitzaion kajoi berria -jaiaren sustatzaile esanguratsuenetarikoa eta gaur egun preso dagoen "Txarra"-k egindakoa por ziertoa ordundik hona eten barik ospatu da urtero. Jaia hornitzen duten elementuak -aski ezagunak diren arren-, jantzien dotoretasuna -traje eta gau soinekoak-, Maritxuk urtero egiten duen miraria, eskapularioa, azkenengo urteetan ere hor dago Maritxu Txanpaina, eta nola ez txikiteoa dira.

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Bisuteria.

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60



Mirariak handituz urtero

Ardoa, elurra, toreroa..., noraino helduko?

Marixuk lortutako miraririk handiena, duda barik, jaiak horren urte gutxitan lortu duen arrakasta da. Baina bestelako miraririk ere burutu du, behin eta berriro arrasatearren harridura -egia esan, batzuen haserreare ere noizbaitzutan- lortuz. 1981ean egin zuen lehenengoa, txikiteroek lore eskaintza egin eta beren patroiarri abesten ari ziren unean gertatu zen..., plazako iturria ardoa zeriola zegoen. "Marixuren miraria, ardoa plazako iturrian!" zioen jendeak sinestu ezinka. Berehala zabaldu zen berria, eta gau hartan, gaztetxo batek baino gehiagok afaldu barik eta burukominez hartu zuen ohea.

Ondorengo urteetan ere miraririk egiten segitu zuen, garrantzitsuenak



honako hauek izan zirelarik: 1985ean, lora eskeintzaren unean, elurte bat

eragin zuen. 1986an, jendea "Marixu nora zoaz" abesten ari zitzaioanean, bera hasi zen abestia zuzentzen jendetza aho zabalik utziz. Hurrengo urtean, 77an, beti bezala abestiaren erdian, Marixuren irudiaren ordeztorero bat agertu zen. Eta azkenik, iaz, Eusko Jaurlaritzak antolaturiko "Bada ezpada..." kanpainarekin bat eginez, preserbatiboak aireratu zituen.

Horrela bada, dagoeneko miraria Marixu Kajoi jaiaren elementu garrantzitsuenetariko bat bihurtu da, eta arrasatearrok iguripen handiarekin itxaroten dugu berau. Hala ere, batzorde antolatzailetik adierazi digutenez, miraria Marixuren esku dago eta berak ikusiko du zer eta noiz egingo duen, edo egingo duen ala ez.

X. L.

Egitaraua iazkoaren antzerakoa

Aurtengoan berrikuntza Zigarrolakoen eskutik dator

Aldakuntzak gorabehera, jaiak aurrera darrai eta aurtengorako ere antolatzaileek gertu dute egitaraua. Setan "Kukubiltxo" animazio taldea arituko da plaza inguruetan. Ondoren, betan gaztetxoaren lore eskaintza burutuko da, eta bi ordu gerorago, 8etan, nagusia. Gaueko 11etan dantzaldia Garibaiko aparkalekuan. Honez gain, herrian zehar ibiliko dira baita ohizko gaitero eta

txarangak ere. Eta aurtengo berrikuntzarik nabarmenena Zigarrola auzotik datorkigu, gaueko ordu batean asto lasterketa jokatu baita bertan. Ea bada, eguraldiak laguntzen duen eta asto lasterketa eder hori ikusteko aukerarik galtzen ez den.

Egitarauarentzat 1.200.000 pezetako aurrekontua prestatu dute antolatzaileek. Diru iturria, eskapulario eta txanpainaren salmentatik

dator, alde handiena txanpainaren diruarekin beteko delarik. Arabako Errioxatik ekarritako 500 kaxa txanpaina-6.000 bat botila- salduko dituzte horretarako.

Eta azkenik, ezin bukatu lerro hauetatik festan egon ezin izango direnentzat, preso eta errefuxiatuak tartean, agur beroa bidali barik. Beste guztiok, ondo pasau, formal ibili eta gutxi gastau.

X. L.

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



Arrasate Pasealekua 4,
79 14 90 ARRASATE

Festaren gorabeherak


Arrasatear zenbaitek bere desadostasuna agertu du

Baina dena ez da larrosazkoa izan jai honen inguruan, bere gorabeherak ere izan ditu, batez ere elizaren sektore batzu eta jaiaren batzorde antolatzailearen artean. Arrasateko zenbait pertsonak gogorki protestatu izan du Ama Birjinaren irudiarekin egiten den erabilera dela eta. Lehenengo urtean jada, parrokoak Ama Birjinari kajoia jartzeko bahimena ukatu zien antolatzaileei -aurreko parrokoak ez zuen inongo oztoporik jarri-. Halaber, sek-

tore erligiosoren batetik etorritako boikot ekintzaren beldur ere baziren.


Baina, erantzunik gogorrena 87an eman zen, 89 arrasatearrek sinatutako gutuna egunkarietako kroniketan argitaratu zenean. Bertan gogor salatzen zituzten, bai Ama Birjinaz egindako erabilera -urte horretan toreroarena izan zen- eta baita jaiaren antolatzaileak ere. Eritziak argi gera daitezke, horra hor Arrasateko bi pertsonaia ezagunen esanak.

X. L.



Agustin Ibarluzea,
"Txispas"

"Begira, herri honek beti izan du ekimen handia gauza guztietarako, baita jaietarako ere Orduan, egun batean, aitzakia bat aprobetxatuz jaiari bati hasiera eman genion, eta helburu bakarrarekin: modu jator, alai eta herrikoian parranda ederra egitea, besterik ez; helburu horrek zutik dirau, eta antza denez, betetzen ari da. Arrasateko festarik arrakastatsuen izatea lortu du. Besterik ikusi nahi duenak ikusiko du, dudarik ez, baina hori bere arazoa da.



Jose Mari Astigarraga,
Arrasateko parrokoa

Ni etorri nintzenean, jadanik jai martxan zegoen, eta gaur egun bere aurka joatea baino beste egite garrantzitsuagoak badaudela uste dut. Jai berez, jai artifiziala da, elizari bere protagonismoa kendu eta gauza sakratuak desbalorizatzeko joera agertzen duen jai. Gazteek alkoholerantz bultzatzen dituen jai, eta hori grabea da. Edaria da bere oinarri bakarra, eta jaiak gizonaren barneko bizipoza sortzeko ez badira, desbideratuak daude.



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabíloia. Tfnoa: 79 62 11

**ARRASATE
PRESS
astero zuekin**

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.



Lan Kide Aurrezkia Taldekoa

Suitza, arrasatear baten ahotik

Pertsonak, arrazoi ugari direla medio sarritan bizilekuz aldatu beharra izaten dute. Arrasatera, kanpotik jende asko etorri zaigu, baina bertatik beste asko joan. Hauetako bat Osane Lizarralde dugu. Ikasketak direla eta Suitzan urte bi t' erdi eman beharko du. Jadanik pasa du urtebete. Berarekin izan dugun solasaldi atseginean han jasotako inpresioez hitz egin zizun.

— Zer dela eta erabaki zenuen ikastera Suitzara alde egitea?

— Injinerutza ikasketak Eskola Politeknikoan egin nituen. Bertan, ikasleei bekak lortzeaz arduratzen den elkarte bat dago. Izena bertan eman eta ikastera kanpora joateko beka eskaini zidaten. Informatika adarra egin dudanez, espezialitate horrekin segitzeko Frantziara edota Suitzara joan behar nuen. Suitzari interesgarriago eritzi nionez, bertara joatea erabaki nuen.

— Gogorra egin al zaizu bertan urtebete bizi behar izatea, hizkuntza aldetik edota ikasketak aldetik?

— Beno, hasieran ulertzen nahikotxo lan izan nuen, baina berehala moldatu nintzen. Frantsesa beste hizkuntza batzuk baino errezagoa dela uste dut. Eskolan berriz, gogor egin beharra dago. Han ikasteak ez du zerikusirik hemen ikastearekin. Suitzako gizartea eta pentsamoldea erabat desberdinak dira eta hori ikasketetan isladatzen da. Zuzenean industriadantz bideratzen zaituzte eta gogorrak dira. Material eta bitartekoak ere ez zaizkie falta, praktikak egiteko askoz ere erraztasun gehiago duzularik. Bestalde, han bakoitzak bere ikasteko erritmoa jartzen du. Nahi izanez gero, poliki poliki atera dezakezu kurtsoa edota portentoa baldin bazara, lau hilabeteetan; horretarako baliabide guztiak zure esku izango dituzu eta azterketak nahi dituzunean egiteko aukera.


— Eta Suitzako gizartea, gureaz oso desberdina al da?

— Erabat, oso gizarte aberatsa da, eta bizitza erabat desberdina egiten dute. Bai ikasketetan eta bai lanean oso konpetitiboak dira. Gazte

gehienek karreraren bat egiten dute eta horren ondorioz, industrian sartzeko orduan lehia itzela dago. Beren helburua ahalik eta hoberena izatea da. Euren artean ez dute harreman handirik, bakoitzak bere bizitza egiten du eta aurrera, besteei zer gerta dakiekeen kontutan hartu gabe. Euren herria onenentzat dute eta kanpotarrentzat ez dute inolako arrera onik.

— Bertakoekin harremanetan jartzea asko kostatzen al zaizu?

— Bai, asko. Kanpotarren artean esan ohi da inoiz ez duzula bertako langunminik izango. Nire eskolan atzerriko ikasle ugari dago eta berarekin oso harreman onak izan ditut, edota Suizara joandako emigranteen seme-alabek. Bertakoekin aldiz, nahiz eta lagunak egin, ez dut harreman esturik egin. Beharbada



Osane Lizarralde

dio tasa oso altua da, droga arazoa ere bai eta Europan HIES-tasarik handiena duen herrialdea da, baina hauek ez dira inon ageri.

Bestalde, oso ejerzito indartsua dute. Beren konstituzioan "Gizon guztiak soldadu jaiotako" esaldia dute eta ondorioz, mutilek 18 urtetik 64 urte bete arte, soldadutzara joan behar izaten dute. Lehen bi urteetan hiru hilabetez eta ondoren urtero urtero, bi edo hiru aste. Horrez gain, lana aurkitu nahian dabilzanak,

“ Suitzako gizartea oso konpetitiboa da. Beren helburua onenak izatea da, albokoari gertatuko zaionaz arduratu gabe ”

interesgarri deritzote zu euskalduna izateari —ez bait dute hemengo ezer ezagutzen— eta hemengo egoeraz eta arazoez hitz egitean adi adi entzungo dizute, baina gero buelta eman eta aurrera egingo dute.

— Zerk eman dizu atentzioa gehien, han bizi izan zaren denboran?

— Gauzak izkutatzeke duten trebezia. Suitza, nahiz eta aberatsa izan, nahiz eta guztiak ikasketak burutu, etab., arazo ugari duen gizartea da, baina denak izkutan dituzte. Bertako egunkarietan ez da agertzen arazo hauen islada. Suiziar

beren kartila militarra aurkeztu behar dute, eta injineru batentzat esaterako, beharrezkoa da soldadu raso baino gehiago izatea, konpetentzia hain handia izanik, graduazio handiagoa dutena hartuko bait lukete.

Atzeritarrentzat ez dute inolako abegi onik. Kanpotarrek lanik txarrenak egiten dituzte, garbiketarako egiten edota eraikuntzan aritzen dira. Gaur egun ez diete diru gabeko atzeritarrei hara sartzeko aukerak, baina eskulan falta izugarria dute. Suizakoa gizarte kontserbadore eta matxista da. Neskek ikasketak burutu arren, ezkondukoan lanari utzi eta etxera.



Arrasateko Saskibaloia Taldea

Epelde

Heldu da saskibaloia

Larunbat honetan, 6etan, Deustuko La Salleren aurka

Arrasate Kirolak saskibaloia taldea bigarren mailan arituko da aurtentzen. Bigarren maila hau 8 ekipoz osaturiko bi multzotan banatua dago, eta larunbat honetan bertan ekingo diote denboraldiari.

Etsai gogorren aurkako neurketak direla eta kontzientziaz prestatu dute taldea. Panticosan egonaldia egin ondoren, lagunarteko hiru partidu jolastu dituzte: Goierriren aurka (2 puntuz irabazi), Burgoseko Tizonaren aurka (20 puntuz irabazi), eta Donostiako Ondarretaren aurka (2 puntuz galdu).

Lehen ihardunaldian, Deustuko La Salle Taldea izango dugu bisitari Arrasateko kiroldegian, arratsalde-

ko 6etan. Bi talde hauetaz aparte Gasteiz, Patronato, C.B. Barañain, Juven, S.R. Cantabria eta Muebles Martin ekipoak. Gogoratu hauetarikoa lau onenak A-1era joango direla bigarren fasean, eta beste laurak A-2ra.

Kanpotik jokalaririk berri bakarra heldu da aurtentzen, Oskar Galilea. Arlo Teknikoa Jose M^a Balzategik eta Koldo Sanabriak zuzentzen dute, eta fisikoa Julio Ajuriak. Beraien ardurapean egiten dituzte entrenamenduak, egunero 8etatik 9'30etara.

Saskibaloia zaleentzat, beraz, aukera ona aurtentzen neurketa interesgarriak ikusi eta zuzenean bizi ahal izateko.



Arrasate K. eta Gay akordio batera heldu

Aurreko astean Errealak J. A. Gay fitxatu guran zebilela jakin bagenuen, badirudi azkenean arrasatearra etxean geldituko dela. Atletismo Taldeko "sponsor" a den Arrasate Kirolekin hitz egin ondoren, akordio batera heldu eta Gay-k ezetza eman dio Donostiako taldeari.



Pilota entrenamenduak

Laster hasiko da Santo Tomas pilota txapelketa; Hori dela eta, zortzi urtetik gorako edozeinek dauka entrenamentuei ekiteko aukera. Izen ematea Iturripeko frontoian edo haur bakoitzaren ikastetxean egin daiteke. Entrenamenduak, astearte, asteazken eta ostegunetan izango dira, arratsaldeko 6etatik aurrera.

ANDERE

Bainu eta sukaldeko ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

FELIPE MADINA ZURAK

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

podiuma

**J.A. Talledo, "Tatxo",
hegaz egitearen ametsa**


"Tatxok" irriparre bat eskainiko dizu bere albora hurbiltzerakoan. Tipo berritsua da, alai. Bere betaurreko borobilen atzean begi biziak. Gustora hitzegiten du hainbeste maite duen kirolari buruz.

Gauza askotan aritua. *"Nik denetik probatu dut: Espeologia, eskalada, rugbya..Beti ere ohizkoak ez diren kirolak. Badakizu, sentsazio berriak aurkitu nahian"*.

Eta halako baten Deltaren munda ezagutu. *"Arrasaten Eli Bolinaga izan zen aintzindaria. Eli Orduñan istripuz hil zenean, orain hamabi urte, atzera egitekotan egon nintzen; baina ezin, ordurako oso sartua neukan hegaz ibiltzearen ametsa"*.

Aurrera jarraituko zuela erabaki eta gero, zazpi urte beteko dira Irungo Bidasoa taldearekin lehen urratsak eman zituela. Urtebete egon zen han. Gerora, Arrasaten bertan osatu dute kontu horietan ibiltzeko koadrila: Delta egiten Montxon, Errasti, Nafarrate, Tatxo bera eta hasiera batean baita Txosa ere. Parapente egiten Joseba, Emilio del Campo, Jon Uriarte eta Andoni Azua; Alvaro ere hor elkartzan zaie bere Globoarekin.

Eskatu Tatxori bame sentsazio horiek esplikatzeko, baina ezin du. *"Oraindik ere beldurra sentitzen dut, urduritasuna, errespetua. Askotan kondizio txarrak daudela, eta halere aurrera egin. Burua zuzpertzten duzu bakarka hitzegiten,*



Ikaroren ametsa bete guran

'benga Tatxo' eta 'lasai' ohiukutuz. Airean zaudenean, dena fenomenala".

Zazpi urtetan esperientzia txarrak ere tokatu zaizkio parean. *"Behin, gurekin zetorren Iruñeko gazte batek kristoren jipoia jaso zuen. Beste behin, Kurtzebarrin, inaugurazioa egitera joan eta Txosak salto egin zuenean... Ze ostia! Imajinatu, oso gogorra da lagun baten istripua ikustea"*.

Auskalo nondik ateratzen dituzten aurrera segitzeko indarra, gogo. Joanak joan, gaur egun ere hor ibiltzen dira, Euskal Herriko zeru urdinaren txokoren batean. *"Etorkizunerako ere asmo politik ditugu. Urriaren 12an, Udalaitz eguna dela eta bertatik salto egitekotan gaude. Ikusi behar nola igoko ditugun gauzak, non lurreratuko garen... Horretaz aparte Marruecosera ere joan nahi dugu, Gabonetan, 4.800 metro dituen Atlas menditik saio batzuk egitera"*.

Hegaz, hegaz darraite Ikaroren semeek.

**Goi mailako froba
larunbatean**

Datorren larunbatean, urriaren 7an, GERVAIS memoriale antolatuko du Arrasateko Txirindulari elkarteak. Froga erlojuaren aurkako eta indibiduala izango da, eta afizionatu mailako Gipuzkoako txapelketarako baliagarria.

Arratsaldeko 4ak aldera hasi Musakolako ostatuan, eta ibilbidea honako hau izango da: Musakola-Osintxu-Arrasate-Eskoria-tza-Musakola.

50 km., eta besteak-beste txirindulari hauek: Aitor Garmendia, Jose Luis Izagirre, Xabier Lazpiur, Jon Odriozola, Luis M. Urizar...ea.

Etorri diren taldeak ere onenariokoak: Paternina-Orbea, Lagun Aro-Fagor, Frinat-Cegasa... etab.



Denborapasen soluzioak

Lauki nahasiak

"Sinisten dut egun batean hilko naizela: Hutsean eroria, ezereean amildua, hauts bihurtuko naizela"



OKENDO

KIROLAK


Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Euri azidoak gure arbolak jaten

Euri azidoa, gizonak eragindako Izadiaren gaisotasuna, tamalez gure basoetara hurbiltzen ari da. Gaitz hau orain urte batzuk, Ifar Europako basoetan atzeman zen lehendabiziko eta dagoeneko Auñamendietako arboletan igar daiteke. Zuhaitzei hostoak horitu eta jausi egiten zaizkie poliki poliki, azkenean hil egiten direlarik.

Errekin fosilak erretzean, petrolioaren eratorriak erretzean, gasolina esaterako, atmosferara jaurtitzen diren karbono eta petrolioak oxidatu egiten dira. Partikula hauek, urarekin topo egitean azido sulfuriko eta nitriko bihurtzen dira. Bi azido hauek lurrera euriarekin batera erortzen dira, arbolak larriki gaisotuz. Arboletan ematen den gaitza atzematen denbora luzea behar bada ere, norberak nabari ditzake kutsadura honen ondorioak hi-



rietako kotxeetako pinturan edota denbora luzez eskegita egon den al-kondaran.

Euri azidoa, industriek atmosferara jaurtitzen dituzten gasen ondorioa da. Isurketa hauen ondorioak, milaka kilometrotara nabarituko dira; kutsadurak haizearekin kilometro guzti horiek egingo ditu eta. Gugandik ez oso urrun bi industria rekord tamalgarri baten jabe dira, beren lotsarako. Aragoek "Teruel" zentral termikoak atmosferara egunean 324 tona azufre jaurtitzen ditu eta Galizako lantegiek eguneko 490 tona. Datu hauek zenbaterainokoak diren kontura gaitezen Londresek botatzen dituen 220ekin gonbaratuko ditugu. Edozein modutan zenbait ikerlek beste faktore batzuk ere ikusten dituzte gaitz honen sorreran, hala nola, lehorteak, izozte berantiarak edota basoen gestio eskasa. Faktore guzti hauek eragin dezakete euri azidoaren ondorioetan.

Galileo Megatoti



**KONTRATAK
OROKORREAN**




Foruen enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE

Womad 89, edo herrien musikaren indarra

Gehiengoaren nagusitasuna absolututzat hartu eta musikari ezarri gero, gaurko lan hau Julio Iglesias-ek Bernabeun eta 60.000 lagunuen aurrean emandako jaialdiari eskaini beharko nioke. Baina, zorionez, gutxiengo baliotsurik aurki daiteke oraindik, Bartzelonan aurtengo udan izan den WOMAD 89 jaialdiak erakusten duen bezala. Nahiz eta, kasu honetan gutxiengo hitza ez oso egokia izan, lau kontinentetako hamasei herrietako ordezkariak egon bait ziren bertan. Hona hemen Rock de Lux aldizkaritik atera ditugun aipamen batzuk:

"WOMAD 89 (World of Music, Arts and Dance) 1982.ean sortu zen, beste batzuen artean Peter Gabriel eta Thomas Brooman eragile izan zirelarik. Egun, ekintza hau aukera bikaina da nazioarteko pop-rock konbentzionalaren zapalkuntzatik



irten nahi duten musikak ezagutze-ko..."

"Aurtengo saioak modu bikainean bete du beraren eginkizuna, hau da, gure artean planeta osoko doinu eta erritmoak sartzearena (...). Eta oso nabariak izan dira doinu eta erritmo guzti horien arteko kidetasuna, elkarrekin nahasteko erakutsi duten gaitasuna.

Agian, egunen batean behinbetirako baztertu ahal izango dute rock-zentrismoa, zeina Mendebalak munduarekiko mantentzen duen zapalkuntza isladatzen duen fenomeno musikala besterik ez bait litzateke (...)"

Herrien musikaren fenomeno hau gero eta indartsuago dago, gero eta presentzia handiagoa du komunikabide eta jaialdietan. Orain gutxiengo zabal baten ondarea da eta laster batean gehiengoarena izateko kinkan legoke. Agian, datorren urtean WOMAD 90ak beteko ditu futbol-zelaiak.

Bitartean, interesatuak jakin beza Espainiako telebistak Bartzelonako jaialdiak grabatu egin zituela, eta zati batzuk emateko asmoa agertu duela, asteazken gauetako "Fuera de Serie" saioan.

Mikel Irizar

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

*Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97

Eskolak, berak bakarrik, ba ote du euskara berreskuratzeko ahalmenik?

Euskararen transmisio kanpaina dela eta, hona ekarri dugu erreflexio puntu hau.

Joshua Fishman-ek (Estatu Batuetako soziolinguista ospetsuak) joan den udaberrian Bilbon hauxe esan zuen:

Eskolak oso gutxitan izan ohi dira efikazak independenteki. Hau da, gure kasuan "eskolak" bitarteko guztiak jarri ditzake euskara transmititzeko, erabiltzeko, sakontzeko. Honekin batera, amahizkuntza gaztelera dutenei ere lagun diezaieke euskara eskuratzen. Baina gure haurrak beste hainbat elementu sozialen eragina jasotzen dute: familia, auzoa, eliza, osasun-zentroa, kirol-elkarteak,...

Elementu sozial guzti hauek eskolan egiten diren gauzez inongo interesik agertzen ez badute, eta

eskolaren lana erreforzatu edo indartzen ez badute, eskolak jai dauka.

Baina kontuz! Badira, noski, eskolari bete-betean dagozkion hainbat lan: besteak beste:

... amahizkuntza sakontzea

... irakurketa eta idazketa, eta hizkuntza idatziarekin zerikusia duten apendizai edo ikaskuntzak.

... Bigarren hizkuntzaren eskurapena (euskara, gaztelera)

... ahozko eta idatzizko hizkuntzari dagokionez

... berea eta berea ez diren hizkuntzekiko jarrera positiboak garatzea

Eskola "erakunde-zubi" bat da. Bere ikasleak *Familiatik-auzotik-komunitatetik* hartzen ditu eta prestatzen ditu, bakoitzari dagokion rola ahalik eta hobekien bete ahal izateko gizartean. Eskolaren

arrakasta, bada, gizartearen "kontsentsu"aren eta beronek ematen duen bultzadaren arabera dago.

Gurasoen behar besteko onarpen eta bultzadarik gabe, alde batetik, eta gizartearen behar besteko eskari (demanda) eta estimulorik gabe bestetik, *eskolan lortzen diren trebetasunak* eskola-urte beretan geldotu edo mantsotu, eta berehalaxe herdoildu egiten dira, bai hizkuntzari dagokionez, eta bai irakaskuntzaren beste alorrei dagokionez.

Beraz, hiru elementu hauek ("*Familia-auzoa-komunitatea*") hizkuntz transmisioan duten garrantzia ikusirik, ordezkatu ezinak direla esan daiteke.

Klarion taldea

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.





Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

HERRIGINTZAN

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bultzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959

1988

Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezkia

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,
Lan Kide Aurrezkia
"Euskadiko Kutxa" da**



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**

Euskadiko Kutxa



Kalitate-garantia



Aluminio eta P. V. C. ko arrotzeria

Abantailaz beteriko gure leihoek

- * Hotz, zarata, euri eta haizearen kontra babesten dute
- * Europako teknologia aurreratuena P.V.C. leihoetan.
- * Edil-Plastik sistemaz YOSU c.b. arrotzeiak eginak.
- * Kalitate prezio erlaziorik onena

Lantegi eta erakustokia: Labe Garaiak. z/g Tfnoa: 76 53 69 BERGARA
Erakusketa Berria: Kanpantorpea, 2 (Parrokiaren aurrean) ARRASATE

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE



Zaldizpe 3, Tfnoak: 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ARAMBURU COTEMAR

garraio agentzia

ALTUNA


Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errabala 19,
Tfnoa: 79 14 23

Loditasuna (IV)

Puntualki Itziar bere senar Endikarekin batera kontsultategira joan zen. Han miaketa zehatz-mehatza egin zion sendagileak eta egunean beharrezkoak zituen kaloriak neurtu, ondoren bere aktibitate fisikoa ezagutuz, eta era berean bere ohitura eta gantzen pisua ikusirik, honelako puntualizazioak egin zizkion sendagileak:

“Argaltzea ez da gauza erraza, gainera ohiturak aldatzea derrigorrezkoa da arrakasta izan nahi baduzu, bestela alferrik ari zara. Normalean pertsona lodiek gutxi baloratzen dute jaten dutena eta asko beren aktibitatean gastatutakoa: gutxi jaten eta asko gastatzen dutelakoan daude, horrela ez dute ulertzen zergatik loditzen diren. Hainbat azterketek hau jartzen dute agerian: diotena baino gehiago jaten dutela eta pentsatzen dutena baino gutxiago gastatu gainera. Argaltzeko,



jan beharra gutxitzea eta gastua haunditzea derrigorrezkoa da, hots, dieta eta ariketak.

Dieta modu asko daude. Hauen artean barau egitea balio duen metodo bat dugu; luzarokoa izan daiteke,

egun batzuetan jan gabe egonda, baina hau sendagile espezializatuen begirapenez eta zentro baten ingresaturik egitea derrigorrezkoa da, bestela oso arriskutsua gerta daiteke.

Barau intermitentea dugu beste modu bat, astean behin jan gabe egotea adibidez; hau geure kontu egitea posible da baina pertsona askok gaizki pasatzen dutela gertatzen da eta gosez egoten direnez, hurrengo egunean askoz gehiago jaten dute. Horrela metodoaren eraginkortasuna galtzen da.

Beste dieta batzuk, janari moeta batean bakarrik oinarrituak direnak, desorekatuak dira eta aspergarriak suertatzen dira gainera. Horregatik, dieta orokatu eta kaloria gutxikoa da egokiena”.

Eukeni eta Arantxa

RI Compatible ONKYO Cassette Deck
RI Compatible ONKYO CD Player
ONKYO Tuner Amplifier (TX-850, TX-830)
Connecting cable for RI
Audio signal cable
Remote Control included with TX-850/TX-830

*Hau
zer den
jakitea nahi
ba duzu
etor zaitez
gurera*

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

Sokoa

Zeharkale estalia. Arrasate

RAFAEL LORENZO

MEDIKU

ODONTOLOGOA

Zarugalde 3, 1. B.
Tfnoa: 79 35 80
ARRASATE

LASTER ZUEKIN

K
L
I
N
I
K
A

D
E
N
T
A
L
A

Baso eta zelaiak zapaltzen

Ohizkoa den bezalaxe aurten ere Eginek bere eguna Altsasuan ospatzea erabaki zuen. Hau horrela izango ez zenik inork susmatzen ez genez, aspalditik pentsatua genuen bertara oinez heltzea. Ez genekienez zehazki, aurtengoagatik Arantzazutik ateratzea onartu genuen. Goizeko bederatziak pasautxo izango ziren Arantzazutik gora abiatu ginenean Urbixaruntz. Ez zen irteera onegia izan, goizeko lanbro eta beheláinoak gure kotxeen parabisak mugierazi zizkiguten Arantzazuko bidean eta. Bainan gure ustearen kontra, eguna onera egin eta ekiterako orduan jantzi behar izan genituenok, egunak berotu ahala sobran izan ziren.

Ordu bete igarota gero, 10ak inguruan, Urbixako zelaietan geunden taberna gainekaldian dagoen iturriari ura edaten. Ondoren, eta denbora asko alperrik galdu gabe, San Adriane-



rako bidea hartu genuen eta Olta ezkerretara geratzen zitzaigularik, eguneko bigarren igoaldiari ekin genion. Nahiz eta aldapa dexenteak izan zenbait lekutan, lasaitasunez heldu genionez, ez zitzaigun hausporik estutu, bota genituen txisteei farre egiteko izan ezik.

Gaineko lura helduta gero, hasi ginen jeisten eta San Adriango kalzada gure azpian hartuta Mikeleteen txabolara ordu t'ardi eman ge-

nuen oinez. Behin bertara helduta eta bapo-bapo bazkaldu ondoren, egiten zuen giroak siesta egitera gonbidatu gintuen eta hartan saiatu ziren batzuk eguzkipean. Otzaurteraino doan bidea zabala eta gehien bat lau denez, ordubete egin genuen, eta azkarrago egin zitekeen masustak jaten trabatu ez bagina.

Otzaurteko tabernan sagardoa dastatu ondoren, bidez bide heldu ginen Nafarroako mugara Etxegarateko bidetik. Bide honi jarraitu genion karrika generaleraino eta kotxeen joan etorria zakarregia eta ugaria zenez, trenbidera pasa ginen. Modu horretara, Altsasuko estazio inguruan agertu ginen egun ederra pasa ondoren, eta artean ere sasoiatsu geundenez, gauean beste erabateko martxa egin genuen, izan ere martxa bi hauek ezkongarriak izan daitezke. Horregatik maite ditugu

Hankamotz

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTA

FAGOR SUKALDEEN
HORNIDURA OSOA
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

KIROLDEGI

Jateitxea
Eguneroko menua
eta karta

Musakola auzoa 79 82 31

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Arrasate pasealekua 3 bis, Behea ARRASATE- Tfnoa:79 71 64


Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88

Arrasate

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobe-
bekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen.

Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

Errentagarria, zergarigarria eta zure neurrikoa. Etorkizuna duen dirua.

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

Oso interesgarria eta zergarigarria. Seguru hazten den dirua.

AURREZKI-PLANA

Interes handia aurrezki txikiarentzat. Piskanaka gehiagotzen den di-
rua da.

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Miren Arrieta

Puntako tratamenduekin: Zelulitisa eta argaltzeko sistema.

Aurpegiko lifting ez-kirurgikoa.

Gainera, estetika-zerbitzu zabala.

Zatoz eta kontsultaiguzu

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

Obea

Ate automatikoen ezarpena

**Konponketak
Berriztapenak**

Galdetu prezioak

**IGONGAILUEN
MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea
Tfnoa: 79 12 08

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

TXOKO TABERNA

*Eure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak.*

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO
DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan garajea behar da, erosteko edo bestela alokatzeko. Tfnoa: 79.63.22.
- Donostian konpartitzeko etxebizitza behar dugu. Dei egin 79.67.76 edo 79.59.11 tfnoetara.
- Urrian eta azaroan zehar pisu baten gela behar dut. Lekurik badaukazu deitu: 79.80.86. Luis.
- Bilbon (Deusto). Pisu merkea konpartitzeko bi neska behar ditugu. Tfnoa: 79.83.63. Marian.
- Pisu salgai Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 78 26 97.
- Neskez osatutako pisu bila ari naiz Arrasaten . Tfnoa: 79 20 11. Luz. 296 . 9etatik letara edo 2etatik Setara.
- Pisu osatzeko lagun bila gabiltza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan-orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolasi.
- Neskez osatutako pisu bila ari gara Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitezekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik Setara bitartean)
- Zarautzen, erdialdeko pisua errentan (igogailu eta guzti). Irailean 100.000 pezeta. Interesatuak deitu 83 17 67 tfno zenbakira. (Eguerdia aldera edo arratsaldeko 6etatik aurrera)
- Pisu salgai Aretxabaletan, Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- Arrasaten erdialdean pisua salgai, Banco Bilbaon. 115m2, garajea eta trasgela. Tfnoa: 79 51 21
- Pisu errentan hartuko genuke Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera

- Pisu salgai Munar inguruan. 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- Donostian konpartitzeko etxebizitza behar dugu. Dei egin 79 67 76 edo 79 59 11 tfnoetara

LANA

- Euskaraz dakien pertsona haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko, behar dugu. Tfnoa: 79 72 75.
- Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Orduka. Deitu 8etatik 11etara, 79 98 83 tfnora.
- Emakume edo neska behar da etxeko lanen eta hiru haurren ardura hartzeko. Euskaraz baldin badaki hobeto. M. Kruz Rodriguezengana zuzendu. Erguin kalea,3 bis. 3.a,esk.
- Pertsona arduratsua eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86
- Bisuteria salduz lan egin nahi baduzu, deitu 79 68 45 tfno zenbakira.
- Euskaraz dakien emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- Neska arduratsua haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.

SALEROSKETAK

- Diskette berriak salgai 150 pezetatan bakoitza. Tfnoa: 79 71 26. Unai.
- 4/4 neurriko bigarren eskuko biolina salgai. Interesatuak dei telefono honetara: 79 52 15.
- Hollister bildumako eta Jaguar bildumako liburuak salgai, erdi prezioan. Ia berriak. Deitu 79.80.91 zenbakira. Otorduetan.
- Motorra salgai, Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- Bizikleta salgai. egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- Senar-emazte logela salgai egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- Kanadiar kanpin denda salgai (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- 60 W-ko Roland kitarra anplifikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.

DENETARIK

- Etxeko gauzak (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79.84.76 be-deratzietatik aurrera.
- Collie arrazako txakurra, emea, ondo zainduko duenari emateko prest nago. Tfnoa: 79 30 20.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Leonor Alonso Garcia
87 urte. Irailaren 28an

Jose Berezibar Sagasta
88 urte. Irailaren 29an

Natalio Carmona Alonso
60 urte. Irailaren 29an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebeha.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64**

Famauen ahotik



...Lehenengo etxien, gero RONEO, oin
hemen, ...ni beti kriaui...

52etik RONEOn txofer

Ni Bergaan Aseginolazanien hasi nitzuan mekaniko. Bi urte ein eta hemezortziaz txofer. Gero Bonbulunien ibili nitzuan urune partiruten. Kroner Deus bat ibiltten naituan, matrikula 14.434; sekule etxatek ahaztuko. Bost belozidade jaukan,... Gero RONEOra etorri eta han "Mack"-a; harek jauzkan hamabi. Ni 52ien etorri nitzuan RONEOra 26 urtekin eta ointxe sei urte gaixotu arte egon nitzuan.

Astue be orduko kamioie baiño aguruau

Horrek RONEOko "Mack"-orrek gasoliñie erreten juaan...! CAMPSA-ko kamioie be gutxi zuan harentzako. Eterra, barrez, arrankaualdi guztietan biher. Ha barik ezta urrumaik pe. Ostera tiretu, lauen zerbait baiñe aldatz goran bapez, astuaz be hareaz baiño aguruau. Bidien aspertu, desesperau... Bajau, txixe ein, eta arrapau eifi eikian.

Madrillera hiru egunetarako jueten gitzuan eta Coruñara astebe-te. Gero Pegasue-eta ekarri jittuen eta hareik aguruau ibiltten zittuan.

Felix Bolibar:

"Oingo kamioiekin gaur be juango nitzakek hortik ziher"

LAN ASKO ETA DIRU GUTXI

Kamionerue moruen kastigauteko personaik iñor etxak. Munduen dauenik gauzaik atrasauena,... eta txarto pagaute. Gaur barrenderuek hobeto pagaute jazak kamionerue baino. Neuri zer pasau jatek? Gorputze hondatu eta duro bat irabazi ez. Bape dabillenak gutxien gutxienez 33.000 duro biher littukek.

Oingo kamioiekin gaur be juango nitzakek.

Askoik ez baiñe multa banakie be bai

Baten bat beti izeten zuan baiñe hola multa askoik etxuat euki, urtien pare bat ero. Orduen barillie soltau biher izeten zuan bixkor ibiltteko aldatza goittik behera izeten zanien. Barillie badakitzue zer dan? "Punto muertuen" ipini biher, eta "echando demonios" pasetan gitzuan hor Somozierran behera. Freno elektrikuie emon mailla pare bat eta oifetzuen pare. Bestela, zer ba? Bestela tontotu, zahartu. Hantxe birriten ero harrapau nindduen.

Cariñena-tik ardaue

Madrillera-eta bestien ez baiñe Andaluziara be dexentetan juen izen nok eta handik Cariñenako ardaue ekarten naixuan. Guk, orduen, tabernie eifi aurretik, hemen etxe aurrien tejamana bat gaukan eta hemen hasi gitzuan ardaue saltzen. "El Portal de Belen" deiketan jutzien. Horreik 200 litroko barrikok "en un santiamen" jueten zittuan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

— Aitta, maixuak preguntau dost Afrika nun dauan eta nik jakin ez. Zuk badakizu, aitta?

— Ez, etxakixat seguru. Nolatanahi be ezin urrin egon, gure taille-rrera beltz bat egunero bizikletan etortzen dok behintzat eta.

■ ■ ■ ■ ■

Mediku plaentziar harek esaten ebana:

"Medikuena dok ona, medikue-na; gaixua hiltzen dala eta medikuak kulpia, osatzen dala eta San Antoniok".

Badakizue azeitunei zela deitzen dotsen Plaentzian?

"Andaluziako keixak".

■ ■ ■ ■ ■

Uberako mutil batek ziñuan:

— Aitta eta bixok basora joaten ganian sardaua eruaten juau erateko. Etxaok holako eraririk basorako.

— Baietz uste dok?

— Sardauak moteldu eitten jok pa, eta hamarretakua einddakuan hartu trastiak eta etxera.

■ ■ ■ ■ ■

—Eta jakin bihok kriauiak ugazaban esana zintzo egin eta ixilik egon biha dabela. Ugazaba ugazaba dok eta berak nahi dabena eitten jok-kriston erretolikia sartu zotsan kondiak bere kriaui.

Behin haren andria, kondesia agertu jakon kriaui larri eta estu:

—Andres, Andres!! Etorri! Kondia etxe aurreko intxaar arbolatik urkatuta dago!

—Eta zer? Ugazagak berak nahi dabena eitten dau.

Juan Martin Elexpuru



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



JESUS ELKORO
BIDEO - KLUBA
Tfnoa: 791886 ARRASATE



Barinagako Iturbe baserrian jaio zen Don Jose Maria Arizmendiarieta, 1915eko apirilaren 22 batez. Leku askotan utzi zuen bere nortasunaren marka; etxean, apaizgaitegian, *Eguna* egunkarian, eta batez ere Mondragoen. Halako batean, 1968an, bihotzak lehen abisua eman zion. 1974ean lehen aldiz operatu egin zuten

bihotza irekiz eta balbula artifizial bat ipiniz. 1976an bigarren ebakuntza, zauriak ez bait zitzaizkion ixten. Urte berean, hil egin zen. Azaroak 29 zituen. Gorpua bi egunez egon zen Parrokian. Abenduaren batean, hileta egunak. Eliza jendez gainezka. Aldare inguruan hirurogei abade. Azken agurra kanposantuko atarian egin zitzaion. Argazki hau bertan

atera zen. Zerraldoaren inguruan Uribe baserriko haren lobak, Jesus Larrañaga, Del Arco jauna, Javier Mongelos, Jose Maria Ormatxea. Hauekin batera, lehen ileran, bere ohizko bibote eta begitartearekin, orduko Gipuzkoako Guardia Zibilaren Komandantea, gerora otsailaren 23 negargarri hartan, aktualitate bihurtu zen Antonio Tejero Molina.

J. R. Galarza Arrazola

Kirurgia ortopedikoa eta traumatologikoa

Hasi: Irailaren 5ean

Kontsultak: astearte eta ostegun arratsaldetan

Ordua: aurrez eskatuz

San Vicente Ferrer 4 behea. Esk. 79 27 67 Arrasate



ERAÑA

AHOLKULARITZA

**OROTARAKO
ASEGURUAU**

Kontzesiño kalea 4, behea

Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren
diagnostiko goiztiarra, bular patologia,
zitologia, menopausia, haurdunaldiaren
kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE


LILURA -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

**MARTINEZ
aroztegia**
Sukaldetan
neurri guztietako
altzarak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**ARQUERO
Anaiak
ERAIKUNTZAK**



Araba Etorbidea 40, Behea
Tfnoa 79 01 51 Aretxabaleta



GIPUZKOA

HERRI Irratia

I

Nere herriko neskatxak, institutuko garaia heltzen zitzairenean, ausardiaren zapore berriak dastatu guran eta neskatila zintzoen itxuratik aldentzearren, bakeroak erabiltzen hasten ziren. Baina nere herriko neskatxek ez zuten ausardiaren barreneko bidaia larregi luzatzen, eta hotzaldi izugarriak jasaten zituzten ezen jertsea mundu guztiak bezalaxe erabili beharrean, -soinaren gainean esan nahi bait da- bakeroen atzekalde zoragarri bete estaltzeko ebalten bait zuten.

II

Nere herriko erdialdean bada enparantza bat. Hobeto esanda, nere herria enparantza bat da, eta bertako kafetegiaren terrazan jasartzen dira andra koadrilak, denbora -eurena- eta bizitza -besteena- nola igarotzen diren ikusi asmoz. Zuhaitzetako hostoak eta andreen mingainek soilik hausten zuten udazkeneko arratsaldearen lasaia eta patxada. Mutikotan, enparantzaren beldur ginen, baina nere herriko ibilbide guztiak enparantzatik iragaiten dira. Eta ausardiaren bide labain horretan lehen pausuak emanez, bikoteka zeharkatzen genuen plaza lagun taldekook: goruntza joaterakoan neskatxa bati besoa sorbaldatik pasa eta jolasean eta barrezka igaro terrazaren paretik; beheruntza, berriz, beste neskatxa batekin musuka.

Eta ia pozez lehertzen ginen mingain haien dardar errotuen oihartzun harrizuekin.

Jon Iriberrri

Memesa

79 42 22

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

■ **Bernardo Atxaga Euskadi Irratira?.** Oñatin eman zuen hitzaldiaren ostean esan zigunez, Euskadi Irratiak oraindik ez dio erantzunik eman berak egindako proposamenari. Bernardok zera eskatzen du: gaueko 12'30etatik ordubiak arte iraungo duen irratsaioa. "Gaueko Abezedarioa" deituko litzateke, bera eta bere lagunak ardurapean egiteko, jite kultural irekia izango luke eta Gasteizko estudioetan egingo. Maiztasuna eta beste zenbait puntu ere erabakitzeke dauden honetan, ez dugu dudarik egiten han izango litzatekeela aurtengo irratigintzaren albisterik garrantzitsuenetakoa.

■ **Pako Aristi TVEn:** Zur eta lur gelditu nintzen Kuban omen zegoena - uztaila partean "Agur ta banoa" esanez, Karibeko irlara zihoala esan zigun DVren orrialdeetan - bazkalosteko programan ikusi nuenean, zer eta, gaztelania doi eta dotorean, bertsolaritza esplikatzeko aurkezle pertxentari. Flash ikaragarria. Pott bandakoen berri ere eman behar izan zuen. Noiz da azken aldia euskal idazle bat Madrilgo estudioetan hitz egiten ikusi dudala?. Auskalo. Zerbait aldatzen ari ote da hortik zehar? Kontuan izan Atxaga, Saizarbitoria eta Arantxa Urretabizkaiaren azken liburuen erdal itzulpenak atera berri direla.

■ **Sopa de gansos:** Hau Rosa Leon abeslariak TVEn aurkeztu duen haur saioa da. Aurreko batean, Maite izeneko neskatila irten zen Kaxianoren "Ez egin negar" abestuz. Bukatutakoan Rosak Estatuko ea zein hizkuntzatan abestu zuen Maitek galdetu zien gainontzeko umei. Ez zen ez gaztelania, ez katalana, ezta gailegoa ere... hizkuntza asko aipatu zen, euskara ezik.

■ **Euskadi Irratiaz:** Joxe Mari Otermin, Euskadi Irratiko zuzendariak oraindik orain HABE aldizkarian azaldu duenez, Euskadi Irratiak 60 pertsona dauka nola edo hala kontratupean, 80 denetara, kolaboratzaile eta guzti. Hiru kontrol nagusi, lau estudio, bi kontrol txiki eta hiru unitate mugikor. Entzulegoari dagokionez, Bizkaian 20.000 entzule inguru dituzte. Gipuzkoan 36.000 gutxi gorabehera. Normalean entzulea gaztea da, 45 urtetik beherakoa, gehiengoa 5.000 bizilagunez beherako herrietan eta 10 milatik 50 mila bitartekoetan. Askoz gutxiago 5 milatik 10 milako tarte horretan, 50 milatik gorakoetan eta hiriburuetan Aurrerantzerako lehentasun bat aipatzen du: Bizkaia. Ez da erronka makala!

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Ikusmira:** Zinema gustokoa duzuenentzat egindako programa. Rosa Zufiak aurkeztuko du. Donostiako Zinemaldia zela eta ederto asko erakutsi zigun bere balioa. Ostiraleko saioa ia osorik Bette Davis izar iparramerikarrari eskainia da. Ostiralean, 15,50ean.

■ **Hitzetik hortzera:** Bertsozaleentzako saioa. Joserra Gartziaren eskutik datorkigu. Aurrerantzean igandero etorriko zaigu. Aurtengo sasoirako Joserrak sendotu egin du bere taldea. Lehen saioetan aurten jokatuko den Bertsolari Txapelketak eramango ditu minuturik gehienak. Igandean, 14,15etan.

■ **Brigada arinaren eraso:** Hauxe duzue Michael Curtizen filme ospetsua, Errol Flynn eta Olivia de Havilland aktore famatuak laguntzarekin. Filme honen abiapuntua Crimeako gudua da eta Balaclavako eraso entzuna. Ondorioa abenturazko filme ederra dugu. Larunbatean, 15,00etan.

bideoak



Hamaseigarrenean aidanez

Hona hemen Euskadiko Filmategiak salgai jarri dituen bideoetatik lehena, Angel Lertxundiren nobela famatuan oinarrituta.

Domingo apusturako bizi da. Horixe du lanbide, estropada, frontoi eta dema apustutako korredore moduan. Apustuzaletasun horrek apustu arriskutsuak egitera eramango du.

Salgai VHS nahiz Betan 2.000 pta.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

								N											
								N											
			E		:														
				,															
									A										
									A										
A	N		E	A	M	I	L	A	I	Z	E	S		B	I				
E	A	N		H	U	R	T	R	O	R	I	E	L	A					
S	T	E	N		E	G	U	L	A:		H	H	A	U	T				
T	E	A	N	K	O		N	A,		E	Z	N	A	I	Z				
U	T	S	E	D	U	A,		S	I	N	I		D	U	T				
E	R	E	Z	U	K	O		N		B	A		H	I	L				

Lauki nahasiak

Beheko lauki handiak (marra sendoak) goian behar bezala antolatu eta Xabier Leteren poema zahar eta ilun baten zatitxo bat agertuko zaizu.

(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zureganako pertsona horrek zuen eraginak min handia egin dizu, baina garaiz konaturatu zarenez, ez duzu ezenez damututa egon beharrik.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Motibo pertsonal bategatik bidaia bat egiteko aukera izango duzu, eta hortan pertsona bat ezagutuko duzu, lanean asko lagunduko dizuna.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Gogorregi jokatzeko ari zara lagunekin gehiegi eskatzen diezu, eta haiek nahiko daukate dituzten arazoekin. Ez sartu interesatzen ez zaizkizun asuntuetan.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Nahiz eta zure urtebetetzea ez izan, opari bat jaso duzu. Eskertu, egin beharko zenioke egin dizunari, lortzea sufrimendu asko kostatu zaizkio eta.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Aldaketa asko nabarituko duzu zure ingurunean, baina horrek ez dizu eragina haundirik sortuko. Ohitura hartzen ari zara edozein egoeratarata moldatzeko.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Gorabera asko dituzu aspaldi honetan, egoera txar batetik pasatu behar duzulako. Denborarekin dena konpontzen da eta zu baliabide haundiko pertsona zara.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Asko kostatu arren, besteei erakutsi beharko diezu hori, kapaza zarelako. Bestela, puntu asko galtzeaz gainera, gaizki sentituko zara zure buruarekin.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Hemendik aurrera bide berri batetik abiatuko zara, orain arte ibili zarenean traba haundiak aurkitu dituzulako. Oso suerte ona izango duzu oraingoan.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Nahigabetua eta deprimetua sentitu arren, hasi dituzun ekintzak beharko dituzu. Beraz, aldatu portaera hori eta ekin lanari, bada garaia eta.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Bakarrik sentituko zara aste honetan baina nahi duzulako, laster espero dituzun berriak etorriko dira eta horiekin lasaitasuna.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Ez duzu ezertaz kezkatuta egon beharrik konponduko direlako. Aprobetxa ezazu egoera hau guztiak zurekin daude eta.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Arazo batzuk aurkituko dituzu bai etxean bai lanean, baina ez kezkatu, hodei txiki bat besterik ez da. Segi orain arte bezala.

URRIAREN 29ko HAUTESKUNDEETAKO MAHAIBURUAK

Irailaren 27an egindako zozketaren arabera, hona hemen U-29ko hauteskundeetako mahaiburuen zerrenda, auzoz auzo. Dagoeneko jaso dute abisua etxean.

EL FERIAL

Gallastegui Azkoaga Juan Antonio
Uzarraga Gallastegui Juan Antonio
Gallastegui Lete Miren Maite.
Uribeechevarria Otaduy Jose Angel
Mercader Sologaistoa Luciano
Martiaru Zugasti Mikel
Etxeberria Salazar M. Concepcion
Velez de Mendizabal Azcarraga Javier

SAN ANTOLIN IKASTETXEA

Jimenez Navas Teofilo Jose
Diaz Hernando M. Luisa
Muñon Aberasturi Ana Isabel
Viejo Ojanguren Cesar

SANTAMARINA AUZOKO-ALKATETZA

Garcia Jimenez Lorenzo
Sanchez Rico Matilde

SANTAMARINAKO ESKOLAURREA

Giner Hidalgo Isabel
Sanchez Nieto Isidro

SAN ANDRES IKASTETXEA

Banuelos Cortabarría Juan Carlos
Mayoral Rodriguez Fernando
Vergara Alzuri M. Asuncion
Dominguez Rodriguez Hilda


URIBARRI AUZOKO ZAITEGI IKASTOLA

Zubizarreta Isasmendi Javier
Garay Barandiaran Juan Luis

ERGUIN IKASTETXEA

Valdezarate Martin Maria Carmen
Gutierrez Busto Rosa Maria
Zabala Liceranzu Alejandro
Gonzalez Losada Manuel

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea. Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ